


# Arrasate

P R E S S

1997ko  
urtarrilak 24  
348. zenb.



“Auxe, bai, lana,  
Andra Maria,  
auxe lan eziñezkoa!  
Biotzik gabe  
nai bizitzea!...  
Biotz gabe!... Gaxoa!...”

(Zeruko Argia 146, 1931ko otsailan)

90 urte jaio zela

# Loramendi

poeta bedoñarra



# Arrasateko OSASUN GIDA

## **DENTISTAK**

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎ 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎ 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎ 79 71 90
- GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ..... ☎ 79 73 88
- IRIARTE IURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎ 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎ 77 12 63

## **DERMATOLOGIA**

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎ 79 72 16

## **FISIOTERAPEUTAK**

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎ 77 03 96

## **GINEKOLOGOAK**

- GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ..... ☎ 79 20 18

## **LOGOPEDIA**

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎ 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **MASAIARIAK**

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎ 77 06 22
- JOSE LUIS ABUJIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎ 77 01 33

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 79 44 22

## **OPTIKA**

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎ 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 79 29 95

## **OSTEOPATIA**

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Errebuelta, 2 ..... (Mobila) ☎ 989-58 66 89

## **PSIKOLOGOAK**

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **OTORRINOLARINGOLOGIA**

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎ 79 20 18

## **REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA**

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ..... ☎ 77 00 40

## **UROLOGIA**

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56..... ☎ 79 44 22

# Literatura irakurri, haurrak!!!

**G**aur egun eskola inoiz baino ahalegin handiagoa egiten ari da ikasleen irakurzaletasuna bultzatzen. Askok irakurtzen duen ikasleak arrakasta handiz gauzatzen dituela ikasketak diote batzuk. Eta baieztapen borobil honen aurrean eskola asko irakurtzen duten haurrak ateratzen saiatzen da, bide pedagogiko guztiak urratuz.

Ikasleek derrigorrezko hezkuntza bukatzean pertsona alfabetatuak izan behar dutela garbi dago. Baina zer da alfabetatua? Gure gizartera etorrita, "edozein testu irakurri eta ulertzeko gai den pertsona" izango litzateke definizioa eta hori lortzea izango litzateke eskolaren zeregina. Informazio soila jasotzeko gaitasuna gaudituz, informazioari



Matilde Sainz

buruzko teoriak, nobelak, antzerkia, poesia, eta abar ulertzeko gai izatea. Honekin esan nahi da, eguneroko testu funtzionalak ulertzeaz gain (egunkaria, foiletoak,...) literatur testuak ulertzeko gai izango direla ikasleak.

Irakurketaren ideiarekin jarraituz, halere, irakurketari neurritz kanpoko garrantzia

ematen zaiola dio Victor Morenok, nafar irakasleak. "Nahiago nuke mundu guztiak irakurriko balu, baina gizartearen eta gizabanakoaren arazo guztien konponbidetzat hartzea... Horrek sutu egiten nau" Badirudi gai

hau bere neurrian aztertu beharko gukeela. Posible ote da eskolatik pasatuko haur guztiak literatur irakurzaletu izatea? Zergatik ez du eskolak ardura bera bereganatu literatura ez den

beste adierazpen artistikoekin? Musika-rekin dela, pinturarekin dela.... Ez ote da inportantea oinarriko hezkuntza musikala edota artistikoa pertsonarentzat?

Eskolak alfabetatzearen kontuan erantzunkizun osoa du eta behar diren bitartekoak jarri beharko ditu eskola uzten duten gazte guztiak alfabetatu izan daitezela. Baina, zer esan literatur zaletuei buruz?

Erreflexio puntu honekin hasteko, ikasleen aniztasuna ekarriko dut gogora. Suposa daiteke ikasleek literatura dastatzeko, ulertzeko eta ekoizteko aukera izan dutela eskolan, eta gainera, guztiak aukera berdina izan dutela. Halere, badakigu haur batzuk beren kabuz irakurtzen jarraitzen dutela, eta beste batzuk, berriz, ez. Zer gertatuko litzateke literatura ez den beste adierazpide artistikoekin eskola ikasleengan zaletasuna lortzen saiatuko balitz? Ba seguruenik literaturarekin gertatzen dena. Hona hemen gaurko hausnartze gaita. ■

**"Ez ote da inportantea oinarriko hezkuntza musikala edota artistikoa pertsonarentzat?"**

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Otarola kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardok Kortabarria. **Kazetariek:** Maria Agirre, Iñaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Allube (Tfnoa: 77 08 15). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Iñaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbaman, Fidel Beretzbar, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.

Arrasateko Udaltaren laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundiatoren laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

## 348. zenbaki honetan

1997ko urtarrilaren 24an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen ..	<b>12/14</b>	Baserriko lanak.....	<b>26</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>15/16</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Kulturaren txokoa ..	<b>30/31</b>
Astearen erreposoa...11		Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Foto zaharra .....	<b>34</b>

*Ikuspegia*

**Matilde Sainz .....**3

*Euren ikuspuntutik*

**Maite Barreña .....**8

*Hogeita hamar galderatan*

**Jose Luis Etxebarria.....**30

*Aurrez aurre*

**Karmele Barandiaran .....**26/27

*Asteko gaia*

**90 urte jaio zela Loramendi poeta bedoñarra .....**17/19



Loramendi, fraide eta poeta bedoñarra. Gaztetik etxetik alde eta ez zuen itzultzeko aukerarik izango.

24

ostirala

■ ZINEA

Restauración Alai zinemán 7etan eta 10etan.

■ SAN BALEIXO JAIK MEATZERREKAN

Auzo afaria gaueko 9etan eta erromeria Joxe Gardokirekin.

■ GOZATEGI'Z BLAI

AEDk antolatuta Gozategi'z Blai musika eta dantza taldea gaueko 10.30etan Amaia antzokian. Sarrera 700 pta, Gazte Txartelarekin 500.

25

larunbata

■ ZINEA

Al cruzar el límite Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SAN BALEIXO JAIK MEATZERREKAN

Futbito partidua 11etan. Ume eta gazteentzat jolasak arratsaldeko 3etan. Gorritiren eskutik, pottokak arratsaldeko 4etan. Mus txapelketa arratsaldeko 5etan. Izenematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago, 3.000 pta. Gaueko 11etatik aurrera erromeria. Goizaldean txerri harrapaketa eta berakatz sopa.

26

igandea

■ ZINEA

Al cruzar el límite Alai zinemán 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ SAN BALEIXO JAIK MEATZERREKAN

Meza San Baleixo ermitan Gesalibarko abesbatzaren partaidetzarekin goizeko 11.30etan. Jaien amaiera buruhandi eta herriko trikitalariekin eguerdiko 2etan.

■ BATZAR NAGUSIA

San Felipe Apostolen batzar nagusia 12.15etan San Viator ikastolan

27

astelehena

■ ZINEA

Al cruzar el límite Alai zinemán 7etan eta 9.30etan.

PUB HAIZEA



— DUKIENA JATETXEA —

Aramaioko Dukiena jatetxean **Haratuztetarako** menu berezia:

- Entremes hotz eta beroak
- Txuleta edo legatza saltsan
- Postrea eta ardoa

**2.500 pta.**

Erretserbak aurrez egin!

Tel. (945) 44 50 86



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 79 22 55 79 14 25

LAN POLTSA

Arrasateko Udalak, sortzen diren aldi-ko premiei erantzun ahal izateko Lan Poltsa hau osatzeko deialdia egin du:

• Udaltzain laguntzaileak

Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea urtarrilaren 27an bukatuko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

# 28 asteartea

■ ZINEA

*Al cruzar el límite* Alai zineman 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

# 30 osteguna

■ ZINEA

*La brigada del sombrero* Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ EMOZIO AUTOKONTROL TEKNIKAK

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak emozio autokontrol tekniken ikastaroa antolatu du. Astelehene-tan eta asteazkenetan burutuko da arratsaldeko 6.30etatik 8.30ak arte. Ikastaroari urtarillaren 27an emango zaio hasiera. Izenematea eta informazioa 79 04 59 telefonoan.

■ KANTU ETA DANTZA IKASTAROAK

EKIN emakume taldeak euskal dantzen, saloi dantzen eta euskal kanten ikastaroak antolatu ditu. Euskal dantzen ikastaroa San Andresko alkatetzan asteazkenetan 3etatik 5ak arte izango da; saloi dantzena asteartetan 3.15etan Pablo Urangako egoitzan eta euskal kantena asteartetan

5.30etan Pablo Urangan ere. Izena emateko 77 12 28 telefonora deitu behar da arratsaldean.

■ IKASTAROAK

Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak lau ikastaro antolatu ditu: Saloi Dantzak astelehen goizetan, 10etan; hari tailerra ostegunetan 6.30etan; erlajazio masaia ostirale-tan goizeko 10etan eta enkuadernazioa astearte-an 5etan. Izenematea zabalik dago eta Santa Teresako egoitzan egin daiteke. Tel. 79 04 59.

■ ALBOKA IKASTAROA

Arrasateko Udalak alboka ikastaroa antolatu du otsailaren 15etik ekainaren 20a arte. Ikastaroa larunbat goizetan Arrasate Musikalen izango da eta hiru txanda egongo dira: 10etatik 11ak arte,

11etatik 12ak arte eta 12etatik 1a arte. Matrikula 2.000 ptakoa da, ikasle eta langabetuentzat 1.000koa. Izenematea Gazte Bulegoan egin daiteke edo 77 00 65 telefonora deituz.

■ KARIBEKO DANTZAK

Udaleko Gazteria Sailak Karibeko dantzen ikastaroa antolatu du: salsa, merenge eta batxata. Ikastaroa otsailaren 3an hasi eta martxoaren 9an amaituko da. Astelehen eta asteazkenetan buruko da eta bi maila egongo dira: hastapen maila 7etatik 8.30ak arte eta hobekuntza maila 8.30etatik 10ak arte. Matrikula 4.000ko da, ikasle eta langabetuentzat 2.500ekoa. Plazak mugatuak dira eta izenematea Gazte Bulegoan egin behar da. Tel. 77 00 65.



■ GOZATEGI'Z BLAI AMAIA ANTZOKIAN

Gozategi'z Blai musika eta dantza ikuskizuna Amaia antzokian gaur gaueko 10.30etan. Sarrera 700 pta, Gazte txartelarekin 500.

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 24**  
• Egunez eta gauzez: Amezuza. Santamaina.
- Larunbata 25**  
• Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
- Igandea 26**  
• Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
- Astelehena 27**  
• Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
- Asteartea 28**  
• Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
- Asteazkena 29**  
• Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.
- Osteguna 30**  
• Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00  
Iguaietorria . . . 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00  
(emakumeak) . . . 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**  
Antzuola . . . 76 62 91
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larnialdiak) . . . 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46  
• Espezialitateak . . . 77 05 78  
Oñati . . . 77 12 64  
Oñati . . . 78 08 52  
Eskoriatza . . . 79 98 58  
Aretxabaleta . . . 79 74 58  
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati . . . 78 04 11  
Bergara . . . 76 14 69  
Arrasate . . . 79 14 39  
Aretxabaleta . . . 79 10 52  
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**  
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea . . . 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00  
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62  
Gasa . . . 900 40 05 23  
. . . 79 78 44  
. . . 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak . . . 79 12 22  
PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Monterongo liburutegia**  
Monteron . . . 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

## ESKERRAK EMANEZ

**A**rrasateko Amnistiaren aldeko Batzordekideok, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, Gabon honetan, berriz ere, eta inoiz baino gehiago, euskal errepresaliatuekiko beren solidaritatea adierazi izan duten dendarari eta tabernari guztiei.

Laster, solidaritate hau beharrezkoa izango ez denaren itxaropenez.

*Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordea*

## PROPAGANDA ZERGA ARRASATEN?

**E**z dakit gaur egun horrelako udal zergarik dagoen.

Gaztetan, kirol zuzendari eta antolatzaile nintzela, politikarik ez zegoenez orduak, hileak eta urteak pasatzen genituen, hainbat egunkaritarako korrespondent sal zerbitzua barne -jakina, oso merke sasoi hartan-. Udaletxean futbolaren, pilotaren eta abarren propaganda panfletoa aurkeztu beharra egoten zen, eredu bat baitmentzen ziguten gero banatu ahal izateko.

Arrasaten jaio, bizi edo bertara etorri garenok urgui-lua sentitzen dugu komunikabideen bidez gure industriaren sortzaile izaera, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak, entzuten ditugunean adituen ahotan.

Hau jakina, natural eta zortez, Mondragoen aitzindaritasuna erakutsiz, kanpoko eta barruko enpresa munduan aieratzen dena.

Baina, zoritxarrez, -konpentsazio txarra eta lotsagarria- uste dut beste arlo batzutan gure etxeetako, hormetako, toki publiko eta pribatuetako, markesinetako... -laster ikusiko ditugu margotuta jarritako berriak- itxura txarrak, zikintzen dutela, ezker eta eskuma itsatsitako paperez partxeatuta, kasu honetan zikinkerian txapel-dun izateraino.

Behar bada gure agintariek utzita izango dute ardurari hori, ezintasuna medio. Dena den zentzuzkoa iruditzen zait proposamena, nahiz eta askotan alferrak izan eta zergak erre:

1. Propaganda jartzearen desmadrea debekatu.

2. Propaganda jarri ahal izateko horma neutroak presatzea.

3. Arrazoi horregatik zerga berri bat sortu, eta ateratakoarekin:

-Garbitzaileei diru-sariaren eta abarren propaganda zerbitzuaz gain zabor honen garbiketari aparteko lana izaten dute eta.

Ah! eta izendatu ezinezko mortis bat zerbitzu publikoaren zerbitzu batzuetan? lineako osoko geltoki erabilien, San Andres auzoa and companykoan.

La letxe gara eta. Ezta?

*Koldo L. de Arechaga.*

## Gutun araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorarik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzinez edo inimiziaz datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kale-ratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

**SIRIMIRI**  
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42  
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE


**Memesa**  
79 42 22

# Zein iritzi duzu sabotajeen inguruan?



**Nora Morales**  
Ikaslea  
(15 urte)

Txarto daude. Guztionak diren gauzak apurtzea ez dago ondo.



**Egoitz Apraiz**  
Ikaslea  
(17 urte)

Batzutan ondo daude. Er-tzantzaren jokaerari erantzuteko era bat da batzuetan.



**Ana Mari Garcia**  
Etxekoandrea  
(44 urte)

Sabotajeak egiten dituzte-nek euren arrazoiak izango dituzte. Beharbada zerbait adierazteko modu bat da, eta isilik geratuta ezin dute nahi duten hori adierazi.




**Jose Manuel Carbajo**  
Ikaslea  
(18 urte)

Gaizki daudela uste dut. Diru asko gastatzen da sabo-tajeen ondorioz sortzen diren kalteak konpontzen.




**Maite Arriaran**  
Langilea  
(31 urte)

Gaizki iruditzen zaizkit. Apurtzen dena guztiok ordain-du behar dugu eta bide horre-tatik ez gara inora helduko.




**Daniel Balanzategi**  
Jubilatua  
(64 urte)

Nire ustez berba eginez arazoa konpondu behar da. Nire esku balego presoak eka-rriko nituzke, eta gero ikusi egin behar besteek zer egiten duten.



**Juan Jose Azkarraga**  
Langilea  
(60 urte)

Hainbeste apurketa ez dago ondo. Batzuk gauza bat nahi dute eta beste batzuk beste bat... Nire ustez irtenbidea ez da erra-za izango.



**Yolanda Rubio**  
Langilea  
(20 urte)

Sabotajeak egitea ez dago ondo. Beste era batera adiera-zi daitezke gauzak, ezta?

**ONGI ETORRI,**  
konpainia onean  
egoteak badu  
abantailik.

Otalora Lizentziatua, 5



20.500 ARRASATE

- ☛ Bizitza
- ☛ Etxebizitza
- ☛ Autoa
- ☛ Etabar

☎: 79 70 67

**USTEAK USTE**

*Isiltasunaren legea*

**T**elebista aurrean jarri nintzen San Sebastian bezperan, asteburuari Donostiako tanborrada ikusiz amaiera emateko. Hasteko inbidia apur bat, milaka lagun festarako gertu eta neu astelehenaren atarian.

Kontua da gaurdiko hamabietan ekin ziotela danborrak astintzeari. Aurrez, han eduki gintuen esatoriak, erdi-lokartuta, alfer kontuak entzun eta entzun. Danborrekin batera, liburutegiko balkoian bi alkate, Donostiakoa eta Bartzelonakoa, bandera gora eta behera astinduz. Bapatean, danbor-joleen aurrean, ETArean anagrama, eta enkaputxatu batzuk arraultzak jaurti eta jaurti bandera astintzaileri. Aizuek! eta esataria isilik. "Esango jok ba!" neure artean, baina keba, hitzik ere ez. Denbora gutxiko asuntua izan zenez, ez zela konturatu ere pentsatu nuen, edo erdi-lo nengoenetz ametsen bat ote zen... baina, ez da ETBn hori gertatzen den lehen aldia. Zer kostatzen zitzaion ba bakarren batzuk arraultzak jaurti dituztela esatea. Begibistan dagoena izkututzen saiatzen denak jakingo balu zelako erridikuloa egiten duen!

Beñardo Kortabarría



# Neskameak, umezainak... edozein lan egiteko neskek

**Maite Barreña**

Gehienetan, inoren etxean lan egiten duten pertsonak, nahiz garbitasunak egiten nahiz umeak zaintzen, oso baldintza kaskarretan egiten dituzte lan horiek, eta lotsa barik esan genezake esplotatuta daudela.

Ordutegi zehatzik gabe, ordu mordo bat lan eginez, barregarria den soldata batekin, kontratu barik, aparteko ordurik eta oporrik ordaindu barik, eta batzuetan behar bezalako tratua jaso barik...

Harrigarria bada ere, emakume langileak dira lan-baldintza horiek jartzen dituztenak etxeko langileentzat. Ziur egon haiek halako lan-baldintzak izanez gero lantegie-

tan, gehiegikeria hutsa dela esango luketela.

Ezin dugu ukatu badirela kasu zuzenak ere sektore honetan, hau da, langiletzat jotzen diren etxeko langileak dira, eta horren arabera, ordutegia, soldata, opor duinak dauzkate. Zoritxarrez, gutxien ematen diren kasuak dira horiek.

Arrasateko Emakumea-

ren Zerbitzutik egoera hori salatu ezezik, gai honetan (sentsibilizazioa, informazioa, aholkularitza...) lan egiteko konpromisoa hartu nahi dugu, eta etxeko langileak errekonozitu daitezten borrokatu nahi dugu, horrek esan gura duen guztiarekin.

Gonbitea egiten diegu, batetik, etxean lan egiten dutenei, gurekin batera erreibidinkatu eta lagundu dezaten hori guztia lortzeko eta, bestetik, etxeko langileak hartzen dituztenei, hausnartu dezaten eta lan-baldintza egokiak eskaini dituzten.

Emakume sailean gaude zuen zain. ■

Maite Barreña  
Emakume Saileko teknikaria da

“  
Ordutegi zehatzik gabe,  
ordu mordo bat lan  
eginez, barregarria den  
soldata batekin  
”



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian,  
"Alkoholiko Anonimoek"  
lagundu ahal dizute!!

## Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 61 93 38

## •ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Ispiluak,  
Margoak

Ferrerías, 11 Tel.: 77 10 95  
ARRASATE



astea bi hitzetan

■ 900 ikusle Xagu Tranpak

Guztira 914 lagun joan ziren astebukaeran *Xagu Tranpa* antzezlan ikustera. Zapatuan hurbildu ziren ikusle gehien Amaia antzokira: 388. Ostiralean, berriz, 221 izan ziren eta domekan 305. Ostiralean, bestalde, eskoletako 800 ikaslerendako emanaldiak izan ziren.

*Txalo Produkzioaren* antzezlanak bi ordu iraun zuen, eta ikusleen esanetan antzezlan ona izan zen. Udaleko Kultura Sailekoak pozik daude antzezlanak izan duen harrerarekin.

■ Ekin-ekoak auzoetara zabaldu

Joan den larunbatean bilera izan zuten *Ekin* elkar-

tekoek Gesalibarreko emakume talde batekin. *Ekine*k auzo horretako emakumeei eta Garagartzakoei ikastaroretan parte hartzeko aukera eskaini nahi dielako deitu zen bilera. Batzarrean sukaldaritza eta eskulan ikastaroak antolatzea erabaki zen, eta hainbat hitzalditako proposamena ere luzatu zen. Ikastaroei lehenbailehen emango zaie hasiera, eta astean zehar emango dira eskolak.

■ Manifestazio jendetsua eta tentsioduna

Ehundaka lagun bildu ziren joan den ostiralean Josu Arkauzen kanporaketa salatzeke egin zen manifestazioan.

Herriko plazan hasi zen


hainbat elkartek deituta zegoen manifestazioa, eta hasieran Senideak elkarterako kide batek Josuren egoera zein zen azaldu zuen. Jarraian Erdialdeko kaleak zeharkatu zituen manifestazioak, eta Garibaira heldzean topo egin zuten zain zituzten hainbat ertzainekin. Une horretan tentsio uneak bizi izan ziren, manifestariak geratu eta minutu batzuek ertzainekin aurrez aurre egon ziren eta. "Herriak ez du barkatuko", "hau al da zuen bakea" bezalako esaldiak eta ETaren aldeko oihuak entzun ziren une horretan besteak beste. Ondoren, manifestazioak buelta eman eta erdialdeko kaleak zeharkatu ondoren Portaloian amaitu egin zen.



KONTZEZIÑO KO ETXEAK BOTA

Joan den zapatuan hasi ziren Kontzeziño inguruko etxeak botatzen. Aurrez ere bota izan dituzte beste batzuk, baina astean zutik geratzen zirenen txanda izan da. Orain, ingurune horretan etxebizitza berriak egingo dituzte. Herritar asko izan ziren etxeak behera nola etortzen ziren ikusten.

“ Debako, Arrasateko edota Bermeoko lorpenak edo ekimenak guztiz ezberdinak izan daitezke, baina lorpen horiek hirukoaren desegokitasuna adierazten dute. Alde batetik, hirukoa eusteko interesak defenditzen ari den PSE-EE daukagu; eta bestetik, berriz, EAJ eta EA hirukoaren baldintzei nolabait eusten. Ez da kasualitatea beraz, beste konponbideren bat topatu eta gauzatu den guztietan, HBk EArekin edo EAJrekin lortu izana akordioa”.



XABIER ZUBIZARRETA

Argia.  
1997ko urtarrilak 19,

“ Xabier Zubizarretak... udalean ezarri duen lan egiteko modua azpimarragarria da, praktikan erakutsi baitu eraginkortasuna eta partehartzea eskutik doazela. Eta herri honetan bazterketarik gabeko politika gauza daitekeela ere frogatu du: lan eginez eta lan egiten utziz”.



JUAN J. ANSUATEGI

Argia.  
1997ko urtarrilak 19,

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57

**UGARTE**

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412

ZUBIZARRETA  
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 79 15 65

**URRATS**

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE

## Jaiotzak

- Felipe Zabala Sanchez. Abenduaren 19an.
- Eider Zeziaga. 20an.
- Iker Etxebarria Errasti. 23an.
- Iñigo Lasaga Arana. 25ean.
- Marcos Gabilondo Fernandez. 26an.
- Oier Arregi Hernandez. 29an.
- Aitor Pagaldai Agiriano. 31n.
- Leire Iria Carmona. Urtarrilaren 6an.
- Aitor Larrea Herrero. 7an.
- Sara Lasagabaster Garai. 9an.
- Jokin Larrañaga Altuna. 9an.
- Erika Etxebarria Gutierrez. 12an.
- Jone Rodríguez Corral. 15ean.

## Ezkontzak

- Jose Luis Rodríguez Gonzalez eta Maria Teresa Sanz Alonso. Abenduaren 19an. Zibilez.
- Juan Carlos Rodríguez Olaverri eta Miren Josune Jauregi Isasmendi. 21ean. Zibilez.
- Luis Vicente Martínez Barral eta Raiza Armengol Monterrey. 30ean. Zibilez.

## Hildakoak

- Sabino Amozarrain Unzueta. Abenduaren 20an. 84 urte.
- Juan Larrañaga Uribetxebarria. 16an. 76 urte.
- Encarnación Irasuegi Ibarguren. 20an. 89 urte.
- Felix Arzamendi Enparanza. 22an. 80 urte.
- Concepción Esteban Bueno. 26an. 73 urte.
- Julia Uriarte Bedia. 27an. 85 urte.
- Pilar García Ardanaz. 28an. 69 urte.
- Isidoro Alonso Dimas. 28an. 90 urte.
- Jose Ugarte Anduaga. 29an. 87 urte.

# Oraingoz datuak biltzen Langaik Arrasaten dituen zentroetan

Hasieran izaten diren zailtasunak eta ezjakintasan gainditu ondoren, Langaik Arrasaten dituen hiru zentroak hasi dira lana bilatzen ari direnen lehen fitxak betetzen.

Kurrikulum gehien Bastida Akademiak egin ditu: gutxi gorabehera 200. Bertako arduradunaren esanetan, ikasketa maila altua dutenak hurbildu zaizkie, hau da, diplomadunak eta lizentziatuak. Zentroaren espezializazioari jarraituz, gainera, enfermeria, klinika laguntzaile edo enpresa ikasketak dituztenen kurrikulumak egin dira batez ere. Mugimendua badagokela eta lanik ez dutenek ezezik, lana eduki baina beste

bat aurkitu nahi dutenak ere gerturatzeko dira Bastidako arduradunak azaldukoaren arabera. Oraingoz, bestalde, lau izan dira langile bat aurkitzera Bastidara jo duten enpresariak.

Eskola Politeknikoan, berriaz, oraingoz 55 kurrikulum egin dira baina ekainean kopuru horrek gora egingo du. Izan ere, moduluetan ikasketak egiten ari direnen datuak sartuko dira ekainean, eta 400 inguru izango direla uste da. Eskola Politeknikoan Langairekin arduratzen denaren berbetan, gazteak bai baina 40-50 urte bitarteko jende asko ere hurbildu zaie. Ikasketei dagokienez, moduluren bat, injinerutza edo ostalaritza

eginda dutenen kurrikulumak egin dira batez ere. Hori bai, jende asko oso ondo prestatuta ei dago eta ikasketak bat baino gehiagorekin.

Deba Garaiko Mankomunitateak, azkenik, 100 langabeturen fitxak egin ditu, baina oraingoz ez da enpresaririk hurbildu langile eske. Mankomunitatea erakuntzian espezializatu denez, batez ere ikasketa maila baxua duten fitxak egin dira, eta %60a 20-30 urte artekoa izan da. Mankomunitatera hurbildutako erdiak, bestalde, noizbait lanen bat izan badu ere, beste erdiak ez ei du sekula lanik izan.

Urriari hasi zuten ibilbidea hiru zentroek.



## Udala ere Langain

Egindako eskariari erantzunez, astean jakinarazi zaio Arrasateko Udalarari onartu dela Udala Langairen zentro kolaboratzailea izatea. Beraz, aurrerantzean Udaletxera ere jo ahal izango dute Langairen datu basean sartu nahi dutenek. Hala ere, Udala ere arlo batzuetan espezializatuko da eta honako ikastaroren bat eginda dutenen kurrikulumak beteko dira bereziki: jardingintza, basolanak, eraikuntza eta garbiketara edo etxeko zerbitzua.

## IKERNE ALTUBE (Arrasate Presseko gerentea)

# “Jaurlaritzatik dirulaguntza gutxiago jaso arren, kalitateari eusten saiatuko gara”

Joan den ostiralean prentsaurrekoa eman zuten Euskal Herri osoko 45 aldizkariak eta Euskaldunon Egunkariak. Prentsaurrean azaldu zuten, euskal prentsa egoera larrian dago Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza gutxiago ematea erabaki ondoren.

Arrasate Press-eko gerenteak, Ikeme Altubek, jeitsiera horrek Arrasateko aldizkarian nolako eragina izango duen azaldu digu.

**- Arrasate Press-ek dirulaguntza gutxiago jasoko du Jaurlaritzatik?**

- Bai, 95ean 2.649.300 pezeta eman zizkiguten eta 96an 2.070.000. Herri aldizkari batendako jeitsiera nabarmena da, baina saiatuko gara aldizkariaren kalitateari eusten eta tirada ez murrizten. Beste aldizkari batzuek, tamalez, ezingo dute gauza bera egin eta murrizketaren ondorioz neurriak hartu beharko dituzte.

**- 96ko dirulaguntza oraindik ez dela jaso ere salatu da.**

- Horrela da, eta hori oso larria da aurreikuspenik ezin dugu egin eta. Lehen, Jaurlaritzaren dirulaguntzak jasotzeko deialdia maiatzean egiten zen eta diru kopuru bat uztailean eta bestea urtarrilean jasotzen genuen. Aurten, berriz, berandu egin da deialdia eta urte bukaera arte ez dugu jakin 96an zenbat jasoko genuen. Gauzak horrela, oraindik ez dugu iazko laguntzarik jaso.



Ikeme Altube.

**“Oraindik ez dugu iazko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jaso, eta hori oso larria da”**

**- Zein ondorio ekar ditzake dirulaguntzen gutxitzeak?**

- Herri aldizkariak euskararen egoera hobetzen ahalgintzen dira, baina horretarako beharrezkoak dira dirulaguntzak. Irakurleari produktu duina eskaini behar dio

gunez, ezinbestekoa dugu laguntza jasotzea. Saiatzen gara autofinantziazioa lortzen ere, baina euskarak ezin du dirulaguntzen murrizketarik jasan. Hainbat enpresek, esaterako, jasotzen dute dirulaguntza publikorik baina zoritxarrez euskararen inguruko ei ezartzen zaizkie diru gutxitze nabarmenenak.

**- Neurri berezirik hartuko duzue?**

- Gure kezkek azalduz idatzia bidali dugu Eusko Jaurlaritzara. Bestalde, eurekin harremanetan jarriko gara ea aurten dirulaguntzak jasotzeko deialdia lehenago egiten duten.

## Udazkenean hasiko dira Takoloko obrak

Bilera izan zuten joan den astean Arrasateko Alkateak eta Jose Julian Irizarrek, Garraio Diputatuak.

Hainbat gairi buruz hitzegin zuten bi agintariek eta besteak beste Takoloko bidegurutzeko obrak izan zituzten mintzagai. Irizarrek agindu zuenez, udazkenean hasiko dira Takoloko bidegurutzea hobetzeko obrak.

Takoloko obrak lehenago hasiko zirela aurreikusita zegoen, proiektua 95aren amaierarako bukatuta zegoen eta. Orduan egindako proiektuan aldaketarik egiten ez bada, Takoloko eta Bedoñako bidegurutzeak batu eta glorieta erako bidegurutze zirkularra egingo da. Bedoñako zubia, ostera, bota eta berria eraikiko da Takolo parean. Proiektua LKS enpresak egin zuen, eta obrak 153 milioiko kostua izango zuela aurreikusten zen.

## Fagor eta Daewo

MCCk eta Fagor Elektratresnak kooperatibak erabat gezurtatu zuten asteazkenean plazaratutako informazioa. “Periodico de Alavan” argitaratu zenez, Daewok Fagor hartu edo bere egingo du.

MCCri grazia gutxi egin zion egunkari horrek ateratako informazioak, eta aitortu zuten gai horri buruz ez dela Daewokoekin harremanik izan. Era berean, horrelako informazioek egiten duten kalteaz ohartarazi zuten Fagorrekoek.

Jaurlaritzak eta Daewok ere albistea gezurtatu zuten.

# Arkauzek torturak eta tratu txarrak jasan dituela salatu dute

Josu Arkauz arrasatearra preso dago Madrilgo Soto del Real espetxean joan den ostegunaz geroztik. Ostegun arratsaldean Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratu zuen, eta arrasatearrak ukatu egin zuen ETako kidea zenik. Epaileak, berriz, ETako kideztat jo eta bost atentatutan parte hartu izana leporatu zion.

Ostegun gauean, bestalde, gose greba utzi zuen Arkauzek. Familiak salatu duenez, baraualdia utzitakoan saltxitxa otarteko bat eman zioten. Ondoren ere janari astuna eman diotela eta, familiartekoez esan dute janari hori ez dela egokia 38 egun gose greban egon den pertsona batendako.

Zapatuan, bestalde,



Joan den ostiralean egin zen manifestazioa Josu Arkauzen entrega salatzeko.

anaiak, Jose Ramon Arkauzek, bisitatu zuen Josu. Jasadako tratuaren berri eman zion Josuk anaiari, eta Jose Ramonen esanetan aurpegiaren kolpeek argi erakusten zuten torturak jasan

zituela. Era berean, inkomunikatuta egon den bitartean lo egin barik eta aulki baten eserita eduki ei dutenez, fisikoki apurtuta eta egoera txarrean topatu zuela azaldu du anaiak.

## Epaitegiko kalteak zenbatuta

Urtarrilaren 11n epaitegiaren aurka egindako sabotajeak 1.750.000 pezetako kalteak utzi zituen.

Epaitegiaren lokala Udalarena denez, astean konponketekin hastea erabaki du Udalak. Hasteko 800.000 pezeta gastatuko dira, eta ondoren gainontzeko konponketekin jarraituko da. Lokala aseguratuta dagoenez, konponketen kostuaren %100a aseguratuak ordainduko duela espero da.

## Gesalibarko goi-pasabidea

Hirigintza Batzordeak Gesalibarko goi-pasabidearen gaia epaitegira ez eramatea erabaki du. Udaletxeko idazkariak egindako txostenean jasotzen denez, goi-pasabidea botatzea edo berria egitea eska dakioke Diputazioari epaitegietako bidea hartuz. Diputazioari bide hori hartzea gaizki iruditu eta ondorioak etor daitzkeelakoan, Hirigintza Batzordeak ez du egoki ikusi epaitegietara jotzea. Gauzak horrela, San Juan de Dios ospitalak erabiltzen duen goi-pasabidea dagoenetan gertatuko dela pentsa daiteke.

## Mankomunitateko aurrekontuak

Datorren astean Mankomunitateko junta bilduko da, eta batzar horretan 97ko aurrekontuak onartuko direla espero da. Bestalde, zaborrak Sasietara nork eramango dituen jakinaraziko da.

# Kalistroetan sartu eta hainbat gazte erregistratu zuen Ertzaintzak

Asteazkenean, arratsaldeko seiak aldera, hainbat ertzain San Frantziskoko kalistroetara sartu, eta barruan zeuden gazteak erregistratu zituzten.

Barruan zeuden gazteek kontatu bezala, azken egunetan bi gazte ezezagun hasi ziren kalistroetara joaten, eta asteazkenean norbaitek ertzainak zirela aurpegiratu zien. Ezagutu zituztela ikustean, bi gazteok walky-talkyak atera eta segituan hainbat ertzain


etorri ei zen. Kalistroetako atea itxita, bertan zeuden gazte guztiak paretaren kontra jarri zituzten ertzainek. Une horretan gazte asko zeuden kalistroetan, eta poltsikoetan zuten guztia atera zezatela agindu zieten hatxisa edo beste sustantziaren bat aurkitu nahiez. Ondoren batzueri irretzen utzi zieten, baina barruan geratu ziren gutxi gorabehera 50 gazte, berriz, goitik behe-ra miatu zituzten eta muti-

ko bati behintzat frakak kentzea agindu zioten. Zerbait gazte guztiz beldurtuta irten ziren kalistroetatik.

Ertzaintzaren miaketa arratsaldeko 7.30ak aldera bukatu zen. Ertzainak joaten ari zirela ere, istilu batzuk izan ziren Ertzaintzaren eta kalean zegoen jendearen artean.

Albista idazterako orduan, Ertzaintzak oraindik ez zuen jakinarazi zer aurkitu ziren miatutako gazteei.

# ARKOren egoitza berria



## TELEFONOAK

<b>ATB:</b> .....	<b>77 06 90</b>
<b>ARRASATE PRESS:</b> .....	<b>77 05 65</b>
<b>Publizitatea:</b> .....	<b>77 08 15</b>
<b>Administrazioa eta harpidetza:</b> .....	<b>79 02 26</b>
<b>Faxa:</b> .....	<b>77 09 40</b>

**Otalora, 31 • Arrasate**



## TIBUROIAK ETA SUGEAK ZIRKOAN


Hori bai hori ausardia! Tiburoiaren piznara sartu eta jaten eman! Baina, nor da submarinista ausart hori? Asteburuan Arrasatera etorri zen zirkoko gizona da. Malabaristak, pailazoak eta trapeziztak ezezik, tiburoiak ere ekarri zituzten zirkokoek eta ikuskizun ederra eskaini zuten.

Asierrek eta Davidek pitoi baten pisua zenbaterainokoa zen jakiteko kuriositatea sentitu eizuten eta ez zuten zalantzarik izan: zirkoko pitoiak bizkar gainean jarri eta beldur barik ibili ziren narrastiaren azal preziatua ikutzen.



## KARTEL POLITENA!

Hau izango da aurtengo Arrasateko haratuzteak iragarriko dituen kartela. Guztira bost lan jaso dira Udaletxean, gutxi iazkoekin konparatuz gero, 12 izan ziren eta. Kartel lehiaketaren irabazlea Juan Iglesias izan da eta 23 urte ditu. Juanek Arte eta Dekorazioa ikasi zuen baina margotzerako orduan autodidakta eiz da. Bi gau behar izan zituen kartela egiteko. Juan aurrez lehiaketan parte hartutakoa da baina saria lortzen duen lehen aldia da hau. Zorionak!



## 70. HAMARKADAKO ALKATEAK

Euskaldunon Egunkariak

bilduta, urtarrilaren 14an lehenengo Bergarako udaletxean eta gero Lasa jatetxean bildu ziren orain 20 urteko zazpi alkate, orduko alkate mugimenduari buruz hitzegiteko. Tartean Jose Antonio Altuna "Txatillo" egon zen.



## ERGUINGO "DONOSTIARRAK"

Ez, ez da Donostia, Erguin herri eskola baizik.

Urteroko ohiturari jarraituz, San Sebastian egunean eskolan egindako sukaldari txapelak jantzi eta San Sebastian martxa jo zuten umeek. Jakina, umeek inguruan gurasoak izan zituzten begira begira...



## ARRASATEAR BAT...

"Los 40 principales" izeneko koadrilako 53 gaztek bazkaria egin zuten abenduaren

15ean euren lagun Jon Mikel Arabazolazari agur esateko.

Nora eta Mexikora doa Jon Mikel 3 urtez lan egitera eta

horregatik bere lagun guztiak inguruan bildu zitzaizkion Saran bazkaria egiteko. Lagunek diotenez, 2.000. urtera arte ez da bueltatuko baina

askok apustu egiten dute bakkrik ez dela itzuliko Jaliscoko hiriburutik.

## ...MEXIKORA!

## IZENAK

### Al Andalus

elkartek Zuzendaritza Batzordea berri du. Honako hauek dira batzordea osatuko duten kide berriak: Dorleta Olivenza, Antonia Gomez, Loli Rubio, Rafael Martin, Jose Antonio Lage, Txema Regaño, Rafael Mesa eta Luciano Alonso. Beste urtebetez Rafa Gomez izango da lehendakaria.

## DATA

### 1281ko urtarrilak 26


Alfontso X. erregeak, arrasatearrei esan zien Toledon, Sevillan eta Murtzian izan ezik, gainontzeko hirietan ez zutela zergak ordaindu beharrik. Ikusten denez, sasoi bateko arrasatearrek gaurkoak baino pribilegio handiagoak zituzten.

## ZENBAKIA

### 6

arrasatearrek aurkeztu dute lanen bat Bergarako Jardun Elkartek antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketara, iaz baino bat gehiagok. Guztira aurten 14 urtetik gorako 193 lagunek hartzen dute parte lehiaketan; iaz 176 izan ziren eta urtetik urtera gora doa.

# GIDArekin badakizu nondik ekin!



Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz-Gatzaga

- Gida 97 ez bazaizu etxera heldu...
- Datoren bat txarto agertzen bada...
- Hurrengo urtean agertu nahi baduzu...

Deitu 77 08 15 telefono zenbakira.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK




# Loramendi Bedoñako poeta

**Bizitza laburra, oso laburra izan zuen Loramendik, olerkari bedoñarrak, heriotzak 26 urte zituela eraman zuen eta. Bizitzeko hain tarte txikia izanda, arrasto ikaragarri handia utzi zuela esan behar, ez kopuruari dagokionez, baina bai egindako lanaren kalitateagatik. Etxetik kanpo pasa zuen bizitzaren erdia, baina bere literatur lanari erreparatuz gero, azkar antzematen da gogoa Bedoñan izan zuela uneoro.**

**J**oakin Arana Ezpeleta "Loramendi" 1907ko urtarrilaren 27an jaio zen Bedoñako Mendibitsu baserrian, aste honetan bertan 90 urte bete-ko lituzke bizirik balego. Orduan atxabaltar zena, nola aldatzen diren gauzak!, gaur arrasatear litzateke... baina bakearen izenean erreportai honetan zen modukoa agertuko da: bedoñar eta euskaldun.

## **BASERRITIK KALERA**

Sortetxearen inguruetan, 9 anai-arrebekin batera pasa zuen haurtzaroa Joakin Aranak, naturak inguratuta. Oskorri musika taldearen kanta batek daraman izenburuko ibilbidea egin zuen Loramendik, Mendibitsutik kalera; horrela etorriko zen Arrasateko eskolara, lehenengo Udaletxera eta gero Erdiko Kalera, Elias Azpiazuren eskolara. Eskolan, bere adineko hainbat umerekin egin zuen topo, horien artean Jokin Zaitegi zenarekin. Jose Mari




Velez de Mendizabalek galdegin zion bere garaian Bedoñako olerkariari buruz Jokin Zaitegiri. "Zaitegik zioenez eskolan Juantxo deitzen zioten Loramendiri. Bedoñatik hiru edo lau mutiko etortzen ei ziren eskolara eta Zaitegik esaten zuen Loramendi beldurti samarra zela, baserritarren euskara besterik ez zekielako eta zailtasunak zituelako gauzak ulertzeko. Bere burua kalekume zangozurizat zuen Zaitegik; Loramendi, berriz, basoan harrapatutako otsokume bat bezala ikusten zuen".

### FRAIDE KAPUTXINOIA

Bedoñarra ez ei zen batre nabarmendu eskolan, ez ei zuen aparteko argitasunik agertu. Bere bizitzan, baina, aldaketa izugarria etorri zen 13 urte zituela. Goiz batean, *Oiartzun* izeneko kaputxinoa agertu zen Bedoñan, pare bat mutilen bila. Mendibitsu base-rirra hurbildu eta Joakin Aranaren ama irten ei zitzaion eta baita han zertan zebilen galdetu ere. "Ehizan" erantzun fraideak, "baina arma barik". Mutikoarekin hitzegin zuen kaputxinoak, baiezkoa jaso, eta 1920ko abuztuaren 4an Altsasura joan zen Loramendi. Ez zen sekula itzuliko, nahiz eta bere gogoia hori izan.

Behin kaputxinoen komentuan filosofia ikaste-ari ekin zion Joakin Aranak, ia euskara erabat galtzeraino. 1925. urtera arte egongo zen Altsasun, eta gero Zangotzara, fraide izendatu zuten arte. Ikasketei jarraipena emanez, beranduago Hondarribiara abiatu zen. Tarte horretan etxe-koekin posta bidez izan zituen harreman bakarrak, erdaraz eta usted tratamenduz. 1927. urtean aipatzen zuen lehenengoz urdaileko minak eta makaltasuna. Hurrengo urtean Lizarrarako bidea hartu zuen, bertan filosofia ikasketak bukatzeko asmoz. Lizarrako egonaldian, inguruko



Jendetza izugarria bildu zen Bedoñan 1959ko omenaldian.

**“Bedoñatik hiru edo lau mutiko etortzen ei ziren eskolara eta Zaitegik esaten zuen Loramendi beldurti samarra zela, baserritarren euskara besterik ez zekielako eta zailtasunak zituelako gauzak ulertzeko”**

paisaiaren tristuraz kutsatu-ko zen, baina ikasketetan jauzi berriak eman zituen: ingelesa, musika, armonia, teologia... Komunitatearen aurrean lehen sermoia eginda, 1930ko abuztuan Iruñako kaputxinoen etxera bidali zuten. Eskura liburutegi mardul bat eta inprentatxoa, zer hoberik jakinduria gosez dagoenarentzat!

Errepublika etorriko zen beranduago, sasoi arriskutsua erlijioso eta gainera euskaldunentzat, eta giro horretan hasi-

ko zen olerki lanean, euskara-rikiko eta aberriarekiko maitasuna aitortuz indar handiz.

### SARIKETA GIROAN

Aitzol gidari zela, *Euskaltzaleak* elkarte eratu zen eta elkarte hark Euskal Oler-tiaren Eguna antolatzeari ekin zion. 1932ko edizioan, Loramendik irabaziko zuen Euskal Olerki egunaren sari-keta, eta ondorioz jasoko zuen zilarrezko haritz adarra. Urte bat lehenago irabazita zeukan Tolosako Txapelketa eta "Lizardi Handia" saria esku-ratuta. Jose Mari Velez de Mendizabalen arabera, izu-garrizko garrantzia zuen Euskal Oler-tiaren Eguneko sariak. "1930ean egin zen lehen edizioa, Errenderin, eta hura Lauaxetak irabazi zuen; bigarrena, berriz, Tolosan eta saria Lizardik eraman zuen; hiru-



Dantzariak iaz botatako Mendibitsu baserriaren aurrean.

garrena, Hernanikoa, Loramendirentzat. Laugarren edizioa Urretxun izan zen, eta irabazlea gero idazle modura

nabarmenduko ez zen misiolari bat, Patxi Etxebarria, Filipinetara joan zen; bostgarren edizioa Jokin Zaitegik iraba-

zi zuen, eta seigarrena Luis Jauregik. Hori ikusita esan daiteke Loramendi euskal poesiak sasoi hartan zituen oler-

kari onenen artean sartzen dela, izenei begiratzea besterik ez dago”.

Loramendik, mistikoa izanda ere, maila gorena lortu zuen poesian. Kontuan hartzekoa da gainera, momentu jakin batean, euskara galdu ere galdu zuela, eta gero ahalegin nabarmena egin zuela hizkuntza berreskuratzeko, bere burua erabat janzteko. Josemari Velez de Mendizabalek dioenez, “Zaitegik Loramendiri buruz hitzegiterakoan beste mundu bateko jakinduria zuela esaten zuen, zuhaitzak ezagutzen zituen, txorien izeinak, gorostiarekin makilak egiten zekien, txilibitoak lizarrekin... oparotasun hori bere mistikarekin nahastuz”. Velez de Mendizabalen beraren hitzetan ere, Loramendirengan aipagarria da euskararen dotoretasuna, “aditzaren aberastasuna, artifizialegia akaso”. Zentzu berean Aretxabaletako Loramendi Elkar-teak bedoñarraren gainean idatzitako liburuak, Loramendiren poemetako hizkuntzaz zera dio: “Loramendiren hizkuntza bere garaiko fruitua da. Ez da Bedoñakoa huts-hutsean. Goratxoago aipatu dugunez etxeko euskara ia galdu egin zuen Loramendik. Berreskuratzean, berriz, landu egin zuen eta irakurritako autoreen joera barneratu zuen. Garaiko hizkuntza garbia jaso eta erabili zuen hiztegiaren ezagun duenez.

(...) Loramendiren hitz-lauzko emana askoz ere arinago eta errazagoa dela esan liteke; poesia arras landuagoa da”.

Sasoi hartan literatur munduan Loramendik izan zuen ohiartzuna dela eta, bere heriotzak hutsune handia utzi zuen. 1933ko martxoaren 23an hil zen, Lizardi handik egun batzuetara. Beraz k.o. euskal kulturarentzat. ■

Beñardo Kortabarria

## Lehen omenaldia Bedoñan bertan

Loramendi hil eta bi urtera jaso zuen lehen omenaldia Bedoñan bertan, *Euskaltzaleak* taldearen eskutik, euskara eta erlijio munduko pertsona bilduz, *Lauaxeta* esaterako.

Joakin Arana Ezpeletaren omenez eta oroimenez, Mendibitsuko etxaurrean harria jarri zen, Aretxabaleta eta Arrasateren artean ordainduta.

Hura izan zen lehen omenaldia. Bigarrena 1959ko irailaren 20an egin zen, euskaltzaindiak antolatuta eta jendetza izugarria bilduz. Herriko txistulariak, dantzariak, Antonio Arrue euskaltzainaren hitzaldia eta Basarri eta Lizaso bertsolarien saioak izan ziren zuntzengai. Une hunkigarriena Loramendiren amak, etxaurreko plaka denen bistan jarri zuenekoia izan zen; izan ere, aurrekoa gerra garaian desagertu zen. Urte hartan poesia arloko sariketa Gabriel Arestik irabazi zuen eta bigarrena Bitoriano Gandiagak.

Urte batzuk beranduago, Loramendiren koinatua Aretxabaletako Udaletxean konponketa lanetan zebilela, gerra garaian desagertutako harria agertu zitzaion. Ondorioz, 1971ko irailaren 26an omenaldi berri bat, eta harria olerkariaren izena duen kalean jarri zen. Bedoñatarrek, berriz, harria berezko tokirako eskatu, eta laugarren omenaldia antolatu zuten. Aretxabaletan dagoena, beraz, benetakoaren kopia da.

Urbina Maltzagako jokalaria

## IRAITZ ELORZA

**“Jarraitzaileen babes gutxi izaten dugu Iturripeko partiduetan”**

— Aurtan EBA ligara igo duzu, zer esan nahi du horrek?

— Aurreko urteetan egindako lanaren fruitua izan da, beraz pertsonalki pozgarria da goiko taldean jokatzea.

— Herrikoa zara baina ez duzu gehiegi jokatzen, gogorra da aulkian egon beharra?


— Gogorra bai baina lehen urteetan hori nahi eta nahiez bizi behar gero taldean toki bat izateko. Nik 18 urte baino ez ditut, eta aurretik nekien aulkian egotea tokatuko zitzaidala.

— Zure ilusioa aurrera begira?

— Herriko taldeko boskotean postu bat lortzea gustatuko litzaidake, nahiz eta jakin zaila izango dena.

— Zuk taldean jokatuta, hobeto ibiliko litzateke?

— Ez dut uste, bestela entrenatzaileak kantxaratuko ninduke. Gure taldean esperientzia handiko jokalariai daude eta hori jokoan igeri egiten da. Ni gaztea naiz eta oraindik lan asko egin behar dut gainera asko igertzen da jubeniletan jokatu edo EBA ligan. Jokoa erabat desberdina da eta baita arbitraiak ere.



## SASKIBALOA Ezin hirugarren garaipena jarraian



Urbina Maltzaga bi partidu jarraian irabazi ondoren, hirugarrenaren bila joan zen Manresa baina asmoa eta gogo bere horretan geratu ziren, 105-70 galdu eta gero. Arrasatek txarto jokatu zuen, beraz 35 tantuko jipoiak ez du aitzakirik. Horrela bada, berriro azken tokira jeitsi da Urbina Maltzaga 19 punturekin. Datorren zapatuan Mallorcaren bisita jasoko dute Iturripen arratsaldeko 6etan. Norgehiagoka hori ere ez da nolanhikoa izango. Mallorca taldea sailkapeneko 6. tokian dago bederatzi partidu irabazi eta sei galduta 24 punturekin. Jokalari onez osatua dago eta jokatzen utziz gero, min asko egin dezake irltako taldeak.

## FUTBOLA Mondrak garaipenak barra barra



Mondra taldea ari zela zaila bihurtu da preferentean. Udaren kontrako derbia jokatu zuenetik, jarraian lau garaipen lortu ditu. Azken lau partidutan 13 gol sartu ditu eta hiru bakarririk jaso. Une honetan sailkapeneko 4. tokian dago 37 punturekin. Bere aurretik Unibertsitatea, Mutriku eta Uda taldeak daude, 42, 41 eta 38 punturekin. Datorren domekan Mondrak Zestoaren kontra neurtuko ditu indarrak. Zestoak 31 punturekin sailkapeneko 6. tokia betetzen du. Lehen bueltan Arrasatearrak 3 eta 1 nagusitu ziren.

Mondrako emakumeek berriz etxetik kanpo Ikesi izango dute aurrean domekan. Zornotzako taldea azken tokian dago sailkatua, beraz itxuraz erraz irabazteko moduko neurketa izan daiteke.

## RUGBYA Garagartzan zita rugbylariek



Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldeak Durango izango du aurrerari zapatuan arratsaldeko 4etatik aurrera Garagartzako zelaian. Durangoen kontra 16 eta 24 irabazi zuen Arrasatek lehen bueltan. Datu interesgarria emaitza errepikatzen bada gutxienez. Bestalde, Garagartzako zelaiaren egoera aipatu behar, erabat lokaztuta geratzen da euria egiten duenean eta drenaje txarra duenez, nahi baino arazo gehiago egoten da ura kentzeko.

## ESKUBALOA Gipuzkoarren arteko derbia jokoan



Arrasate eskubaloitaldeak Hondarribiaren kontrako derbia jokatu du domekan eguerdiko 12.30etan Hondarribin. Arrasatek azken neurketan berdinketa lortu bazuen ere, ez zen nahikoa izan sailkapeneko azken tokia uzteko. Hori dela eta, Ibon Alzelairen mutilek ezingo dute amore eman eta hain beharrezkoak dituzten puntuen bila joan beharko dira. Lehen mailako partidua hasi aurretik lehen territorialekoek izango dute zita goizeko 10.30etatik aurrera kiroldegi berean.

# Deba Arroa pilota txapelketak aurten 50 urte bizkarrean

Deba Arroa Txapelketa sortu zenetik 50 urte luze igaro dira. Hamaika herri elkartzen duen txapelketa hau aurten Arrasatek antolatuko du eta finala herrian jokatuko da apirilean. Finalera heldu arte, makina bat partidu egongo dira jokoan Debatik Eskoriatzara dauden herrien artean. Txapelketa bi multzotan banatzen da: batean Deba, Soraluze, Elgeta, Elgoibar eta Eibarko pilotariek jokatzen dute; bestean Bergara, Antzuola, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatekoek. Txapelketa urtarrilaren 12an hasi zen, beraz Arrasateko ordezkariak dagoeneko hainbat ihardunaldi jokatuta dute. Azkena asteartean Iturripen Aretxabaletako pilotarien aurka. Kadetetan 22 eta 9 irabazi zuen Aretxabaletak eta jubenetan 22 eta 19. Afizionatuetan berriz, Arrasate irabazle 22 eta 14 emaitzarekin. Datorren zapatu goizean Arrasateko pilotariek taldeen arteko Euskadiko Txa-



Larunbatean eta asteartean jokatuko dira Txapelketako partiduak.

pelketako partiduak jokatuko dituzte Azpemitiko Ilunperen kontra. Arratsaldean berriz Deba Arroako partiduak jokatuko dira infantil mailan. Arrasatek hiru bikotek hartuko dute parte: Dominguez-Etxeandia, Ormaetxea- Jauregi eta

Zubillaga-Uribarren. Neurketak Aretxabaleta eta Eskoriatzako frontoietan jokatuko dira. Asteartean ostera, arratsaldeko 7.30etatik aurrera Iturripen izango dute zita Deba Arroako pilotariek. Aurkaria Bergara taldea.



Jose Luis Supervias.

## Base berria Urbina Maltzagan

Jose Luis Supervia 20 urteko base zaragozarrak asteazkenean egin zuen lehen entrenamendua Urbina Maltzaganekin. Jose Luisek Estatu Batuetako Scottsdale taldean hasi zuen denboraldia baina hainbat arazo izan eta gero, itzuli egin zen. Azken bi urtetan berriz, ACBko Huesca taldean jokatu zuen. Horrez gain, jubenetan Estatuko selekzioan jokatutakoa da. Curriculum oneko jokalaria hori erabakiorra izan daiteke Arrasateko taldearen base postua sendotzeko. Jose Luisek 1,90 metroko altuera du.

## Herrien arteko igeriketa txapelketa

Herrien arteko aletadun Igeriketa Txapelketa Arrasaten burutu zen zapatuan. Arrasateko igerilariek maila polita erakutsi zuten. Gizonezkoen artean herriko ordezkariak Ander Corcuera, Iban Sanchez, Celestino Fernandez eta Beñat Zabala izan ziren. Emakumezkoetan Eneritz Elorza, Olaia Murua, Esther Gomez eta Eneritz Jauregi. Sailkapena honela geratu zen.

### 50 metro apnea emakumeak

- 1- Virginia Arregi - Tafalla
- 2- Ana Artutxa - Tolosa
- 3- Eneritz Jauregi - Arrasate

### 50 metro apnea gizonak

- 1- IKer Amonarriz - Tolosa
- 2- Gorka Molina - Tolosa
- 3- Ibai Orruño - Tolosa

### 400 metro ur-gainean emakumeak

- 1- Ane Lopez de Bergara - Arrasate
- 2- Maider Urtasun - Tafalla
- 3- Silvia Otxoa - Tafalla

### 400 metro ur-gainean gizonak

- 1- Jabier Sanz - San Juan
- 2- Pablo Castillo - San Juan
- 3- Gregorio Manzisidor - Tolosa

### 50 metro ur-gainean emakumeak

- 1- Virginia Arregi - Tafalla
- 2- Ismene Bilbao - Tolosa
- 2- Ana Artutxa - Tolosa

### 50 metro ur-gainean gizonak

- 1- Iker Amonarriz - Tolosa
- 2- Gorka Molina - Tolosa
- 3- Ibai Orruño - Tolosa.



**Z**azpi ihardunaldi falta dira lehen fasea bukatzeko eta oraindik ez dago matematikoki talderik sailkatuta. Horrek esan nahi du falta diren partidetan zehaztuko direla multzo bakoitzeko aurreneko postuak. Lehia beraz, oraindik bizi bizirik dago eta sailkatzeko txartelak zabal zabalik.

**Bat, bi, bat, bi... jokora!**

## Laburrak

### ■ TALDE BAT GUTXIAGO

Kriskibalda txapelketatik kanpo geratu den seigarren taldea da. Baina besteek ez bezala hauek euren kabuz utzi dute futbitoa. Zergatik? futbitoaren ordezkia aukeratu dutelako. Ez da aldaketa txarra, ezta?

### ■ ATSEDENA

Sei taldek atsedena izango dute datorren asteburuan: Baneuko, Leya, Ke Oxtias, Lautherbrunnen, Los Dimy eta Bedarreta taberna.

### ■ DATUAK DATU

Hamalau ihardunaldi jokatu direnean talde goleatuena Elisabeth izan da, 127 gol jaso ditu. Gol gutxien Cerveceria Leintzek, 25 bakarrik. Atera begira trebeena AC Surcos izan da 109 golekin eta motelena Etxemobel 13 gol baino ez.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea F-0-4  
Telefono: 791844  
Fax: 792944

ARETXABALETA

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**LOGOPEDIA ZENTRUA**  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

**MARKO-JARTZEAK ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Irati STS	14	13	0	1	86	26	<b>26</b>
Betrayer	14	11	0	3	86	33	<b>22</b>
Lorategi Potroak	14	10	2	2	57	34	<b>22</b>
Aurrera Bolie	14	10	1	3	81	43	<b>21</b>
Arrogoi Taberna	14	10	0	4	53	51	<b>20</b>
Pipwhis	14	9	1	4	68	50	<b>19</b>
Galartza Kont	14	9	0	5	59	41	<b>18</b>
DKB	14	7	4	3	50	35	<b>18</b>
Totem	14	8	1	5	65	41	<b>17</b>
Abinagraus	14	7	2	5	71	45	<b>16</b>
Oñaniereng	14	7	1	6	42	54	<b>15</b>
Ojo Avisore	14	6	2	6	65	52	<b>14</b>
Baneuko	14	6	2	6	32	39	<b>14</b>
Me la pela	14	5	2	7	48	44	<b>12</b>
Berango Sukaldeak	14	5	1	8	52	62	<b>11</b>
Potrosorri	14	5	1	8	45	57	<b>11</b>
Leya	14	5	1	8	46	66	<b>11</b>
Alai Gozokiak	14	1	5	8	28	70	<b>7</b>
Viboras	14	3	0	11	53	75	<b>6</b>
Kriskibalda	14	2	2	10	34	72	<b>6</b>
Etxe Mobil	14	1	0	13	13	113	<b>2</b>
Kaxi Ganamos	14	0	0	14	3	34	<b>0</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	14	13	0	1	107	31	<b>26</b>
Cerveceria Leintz	14	11	2	1	87	25	<b>24</b>
Okoretegi	14	10	3	1	80	29	<b>23</b>
Insert Coin	14	10	1	3	69	26	<b>21</b>
Ke Oxtias	14	9	3	2	61	40	<b>21</b>
Argi Ibili	14	10	0	4	94	30	<b>20</b>
Jotakabau	14	7	3	4	47	56	<b>17</b>
Los Innombrables	14	5	5	4	61	58	<b>15</b>
Motz	14	6	3	5	48	51	<b>15</b>
Diego Antonio	14	7	0	7	76	57	<b>14</b>
Pepelus	14	6	2	6	57	51	<b>14</b>
Los Heredia	14	6	2	6	58	54	<b>14</b>
Fosforos	14	6	2	6	60	62	<b>14</b>
ZZPPW7	14	4	5	5	66	69	<b>13</b>
La mosca gao	14	4	3	7	65	75	<b>11</b>
Perrahotsa	14	4	3	7	39	51	<b>11</b>
Gualtrapas	14	5	1	8	45	73	<b>11</b>
Sobredosis de.	14	4	2	8	41	66	<b>10</b>
Ganbelas	14	3	0	11	44	73	<b>6</b>
Kinder Konpresa	14	2	1	11	37	91	<b>5</b>
Elisabeth	14	0	2	12	30	127	<b>2</b>
Hapoei Jamon	14	0	1	13	26	103	<b>1</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
Sortu informatika	14	11	2	1	83	33	<b>24</b>
MSM Ing. Integral	14	11	0	3	69	39	<b>22</b>
Txeyenex	14	9	3	2	67	38	<b>21</b>
Nuevo Taberna	14	9	3	2	72	42	<b>21</b>
AC Surcos	14	9	1	4	109	51	<b>19</b>
Sokoakoak	14	9	1	4	86	52	<b>19</b>
Orlando Piratas	14	9	1	4	67	56	<b>19</b>
KK Jauriaritzari	14	9	1	4	55	53	<b>19</b>
Bedarreta Tab.	14	9	0	5	53	35	<b>18</b>
Koka Juniors	14	6	3	5	59	55	<b>15</b>
Danok Lagun	14	6	3	5	42	47	<b>15</b>
Hirei	14	7	0	7	42	61	<b>14</b>
Adelaïda	14	6	1	7	53	55	<b>13</b>
Los Dimy	14	6	1	7	54	57	<b>13</b>
Lautherbrunnen	14	5	0	9	41	73	<b>10</b>
Tronkoteak	14	5	0	9	29	67	<b>10</b>
Cartonajes Igamo	14	3	2	9	39	50	<b>8</b>
Anbotoste	14	4	0	10	32	53	<b>8</b>
Bukanak	14	4	0	10	40	70	<b>8</b>
Borrock'n Roll	14	3	1	10	65	71	<b>7</b>
Rotor de Bolb.	14	1	1	12	7	47	<b>3</b>
Iluna Taberna	14	1	0	13	31	90	<b>2</b>

## Irudia



**NON DAGO BALOIA?** Zaldibarko jokalariai zoren pare ibili ziren zapatuan baloia aurkitzen; han ez, hemen ere ez. Azkenean gure argazkilariaik objetiboa ondo enfokatu eta begira frontisaren gainean zer aurkitu zuen, Zaldibarko baloi galdua. Hori da hori trebezia!

## Emaitzak

### A taldea

- Ojo Avisore 6 - Me la Pela 6
- Betrayer 3 - Arrogoi taberna 4
- Abinagraus 8 - Kriskibalda 4
- Leya 4 - Irati STS 8
- Potrosorri 2 - Lorategi Potroak 7
- DKB 2 - Alai Gozokiak 2
- Pipwhis 2 - Aurrera Bolie 2
- Oñaniereng 1 - Baneuko 2
- Kaxi Ganamos 0 - Berango Sukaldeak 1
- Totem 5 - Galartza Kontenedoreak 2
- Viboras 11 - Etxe Mobil 3

### B taldea

- Ke Oxtias 7 - Perrahotsa 3
- Argi Ibili 0 - Ganbelas 1
- Okoretegi 3 - Insert Coin 2
- Jotakabau 2 - Motz 2
- Cerveceria Leintz 4 - ZZPPW7 4
- Naranja Mek. 7 - Los Innombrables 4
- Pepelus 4 - Kider Konpresa 1
- Los Heredia 3 - Sobredosis de Txeria 3
- Elisabeth 1 - Diego Antonio 14
- Fosforos 4 - Hapoei Jamon 1

### D taldea

- Iluna Taberna 0 - Bukanak 1
- Lautherbrunnen 2 - Orlando Piratas 10
- Sokoakoak 4 - Bedarreta Taberna 2
- Rotor de Bolbogrado 0 - Danok Lagun 1
- Txeyenex 6 - Cartonajes Igamo 0
- AC Surcos 3 - MSM Ingenieria Integral 6
- KK Jauriaritzari 2 - Nuevo Taberna 4
- Adelaïda Aldibi 3 - Koka Juniors 4
- Tronkoteak 2 - Sortu Informatika 15
- Hirei 1 - Anbotoste 0
- Los Dimy 1 - Borrock'n Roll 1

## Hurrengo partiduak

### 15. ihardunaldia

Urtarrilak 25. Larunbata  
ZALDIBAR

- 8.50 Kider Konpresa - Los Heredia
- 10.00 Me la Pela - Etxe Mobil
- 11.00 La Mosca Gao - Elisabeth
- 12.00 Insert Coin - Jotakabau
- 13.00 Sortu Informatika - Hirei
- 14.00 Bukanak - Borrock'n Roll
- 15.00 Sobredosis De Tx... - Gualtrapas
- 16.00 Orlando Piratas - Sokoakoak
- 17.00 Diego Antonio - Fosforos
- 18.00 Perrahotsa - Hapoei Jamon
- 19.00 Lorategi Potroak - DKB

### Iturripe A

- 13.00 Ganbelas - Okoretegi
- 14.00 Aurrera Bolie - Oñaniereng
- 15.00 Los Innombrables - Pepelus
- 16.00 MSM Ing. Int. - KK Jauriaritzari

### Iturripe B

- 13.00 Berango Sukaldeak - Totem
- 14.00 Cartonajes Igamo - AC Surcos
- 15.00 Arrogoi Taberna - Abinagraus
- 16.00 Danok Lagun - Txeyenex

Urtarrilak 26, Igandea  
Zaldibar

- 8.50 Irati STS - Potrosorri
- 10.00 Galartza Kont. - Viboras
- 11.00 Koka Juniors - Tronkoteak
- 12.00 Nuevo Taberna - Adelaïda Aldibi
- 13.00 Motz - Cerveceria Leintz

### Iturripe A

- 11.00 Alai Gozokiak - Pipwhis
- 12.00 ZZPPW7 - Naranja Mekanika
- 13.00 Ojo Avisore - Betrayer

## KARMELE BARANDIARAN (ASTROLOGOA)

# “Aquarius zeinukoek urte z

**A**strologiak arreta deitu eta gai horretan burubelari sartu zen Karmele Barandiaran orain dela urte batzuk. Donostian bizi den arrasatear honek asko daki astrologiari buruz, eta horixe frogatzeko aukera izan zuten orain dela gutxi Ekin elkarteok antolatutako ikastaroan parte hartu zutenek. Komunikabideetan agertzen diren horoskopoei astrologia desprestigiatzen dutela uste du Karmelek, baina astrologiari esker norberari buruzko gauza asko jakin ei daiteke.

- Zer dela eta astrologian zaletua?

- Irakasle nintzela kontu-

ratu nintzen umeek arazoren bat zutenean letra aldatzen zutela. Hori ezagutu asmoz lehendabizi grafologia ikasten hasi nintzen, eta hortik astrologiara hurbildu nintzen. Ordu-rako Gipuzkoako Astrologi Elkarte eraberrituta zegoen, eta hantxe hasi nintzen astrologiari buruzko lehenengo ezagupenak jasotzen, orain dela hamairu urte inguru. Elkartean hainbat ikastaro jaso dut hemengo edo atzeritik etorritako irakasleen bidez. Behin Ameriketarik astrologo on bat ekarri genuen, eta harek astrologiarako dohain berezi batzuk nituela esan eta ikasketak egitea proposatu zidan. Titulua lortzea ez zitzaidan inporta, baina diziplina gisa EEBBetako Texaseko Unibertsitatean astrologia ikasketak egiten hasi nin-

tzen. Ikasketak posta bidez egin nituen hiru urtetan, eta ondoren gehiago sakontzeko doktoradutza eta tesia egin nituen. Tesia umei buruz egin nuen, gehienbat umeen arloa landu dut eta.

- Zer jakin dezakegu astro-

logiari esker?

- Pertsonaren karta astrala eginda astroek pertsona horrengan zelan eragingo duten jakin daiteke. Zein ordutan, noiz eta non jaio den galdetuta karta astrala egiten da, hau da, plano bat bezalako zer-bait, eta horrekin pertsonaren gaitasunak, zailtasunak eta baloreak ezagutzen dira besteak beste.

Konstelazioak eta hamar astro ikertzen ditugu (horien artean eguzkia eta ilar-gia daude) eta horiek non dauden kokatuta eta euren arteko harremanak

“Pertsonaren karta astrala eginda, astroek pertsona horrengan zelan eragingo duten jakin daiteke”





# ezoragarria izango dute”

eragina izaten du pertsonengan. Nahiz eta batzuek ez sinistu argi ikusten da umeengan, esaterako, astroeragin handia dutela. Astroek eta konstelazioek ibilbide bat dute, eta batzuetan elkarrekin badira ere beste batzuetan elkarren kontra egoten direnez, horrek eragina izaten du pertsonengan. Karta astrala zein den jakinda eta astrologia jarraituz, momentu bakoitzean zein zailtasun eta erraztasun izango ditugun jakin daiteke.

**- Kontsultarik ez duzu bainajendeak eskatzen dizu karta astrala interpretatzea.**

- Bai, horrela da. Batez ere gazteekin, nerabeekin, egiten dut lana. Gazte asko euren bokazioa zein den galdezka

etortzen zait. Karta astral batzuk ez daude hain argi, baina beste batzuk bai eta horien berri izatea garrantzitsua da denbora ez galtzeko. Astrologiak norbera eta norberaren erraztasun eta zailtasunak ezagutzeko balio du.

**- Astroek zelan eragiten dute pertsonengan?**

- Ilargia, adibidez, 28 egunetan zodiako osotik pasatzen da. Ilargia oso garrantzitsua da, gure mundu emozionala mugitzen du eta. Merkurio non dagoen ere oso garrantsi-

tzua da arrazamenduaren gaitasuna ikusteko. Sexualitateari buruz jakiteko, bestalde, Venus eta Martitz non dauden begiratu behar da.

**- Astrologiak etorkizuna asmatzeko balio du?**

- Erabili izan da. Bakoitzaren une onak eta txarrak zeintzuk izango diren ezagutzeko etorkizuna asmatzea bada, hori egiten du astrologiak. Horrek hala ere, ez du esan nahi nire borondateari esker une batean lortzea zaila izango zaidana lortuko ez dudarik.

burukomina izango dute, Cancer-koek urdaileko mina, Librakoeke harremanetan izango dituzte arazoak eta Kaprikornius-ekoek lan asko egingo dute, baina isilean.

Jupiter urte osoan Aquarius-en egongo dela eta, orokorrean urtea zoragarria izango da Aquarius direnendako. Geminisendako ere urte ona izango da eta baita Libra, Piscis, Virgo eta Sagitariusendako. Urtea txarra izango da batez ere Aries direnendako.

**- Orain dela gutxi ikastaroa eman zenuen Arrasaten. Zer moduz joan zen?**

- Karta astrala zer den eta zelan aztertzen den irakatsi nien ikastaroan parte hartu zutenei. Nik pozik bukatu nuen ikastaroa, eta eman nien materialarekin uste dut parte-hartzaileek gaia lantzen jarraituko dutela. ■

**“Bakoitzaren une txarrak eta onak zeintzuk izango diren ezagutzeko etorkizuna asmatzea bada, hori egiten du astrologiak”**

**- Zelan eragingo dute astroek aurtan?**

- Ariesek urte osoan Saturno izango du barruan eta beraz zeinu horretakoek asko erreflexionatuko dute. Aries direnek ere

**BAZAR**  
TOKI ON  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

KONTSULTA BERRIA!  
**JUAN RAMON ARANDO AZPIRI**  
**REUMATOLOGIA**  
LAGUN ARO  
Erdiko kale, 22-1. • Tel.: 79 72 16 • ARRASATE

**ANBOTO  
BODEGA**  
*Anjo giro jatorra!*  
Anboto, 1 behea  
Tel.: 77 09 15 ARRASATE

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua  
**IBABE  
GARAJEA**  
**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**BITTORI  
ERRETEGIA**  
Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



# Pelikula amerikarrak 1996an ere arrakastatsuenak

*Twister*, *Independence Day* eta *Seven* izan dira Arrasateko Alai zinemak 96an eskeini duen pelikula sortako filmerik arrakastatsuenak. Askoz gehiago izan dira ordea joan den urtean zehar Alai zinemako proiektzio gelatik pasatu direnak.

Jose Mari Hidalgo Alai Zinemako arduradunak esaten duenez, jendearen ohiturak zinearekiko aldatu egin dira azken urteotan eta orokorrean, apur bat gainbehera egin du. Alai Zinemak langile gisa igaro dituen 10 urteek eman dioten esperientziaren arabera, orain lehen baino jende gutxiago joaten da zinera. Esaten duenez, "telebistek askoz pelikula gehiago eskaintzen dituztelako eta bideo-klubek zineari leku apur bat kendu diotelako".

Gainbehera hori gehien igertzen den sesioa zapatu gauekoa da. Orain urte batzuk jendeak gustokoaren artean zuen zapatu gauekoa eta jendetsuenetarikoa zen; ikusleek bigarren pisura igo behar izaten zuten. Orain berriz "zapatu gau batean 100 lagun etortzen badira, pozik egon gaitezke" dio Hidalgo. Alai Zinemak 656 lagunendako toki du.

Behera egin duen beste sesio bat igande gauetako da. Orain urte batzuk batzuek beste 120 lagun joaten zen; gaur egun, erdia. Arrasateko zinezaleek astelehenerako emanaldiak ere ez dituzte oso gustoko eta orokorrean, astegunetan nahiago dute gauean, hau da, 9.30etan joatea arratsaldean baino. Ikuslearen egunari dagokionez, astearte 9.30etako sesioak askotan



domekako 3 sesioetako ikusle kopuruak gainditzen

dituela esan behar da. Ikusle kopuru aldetik finkoen jarraitzen duen sesioa berriz, igande arratsaldekoa da: batzuek beste 200 lagun joaten da.

## GUSTOAK ETA INTERES KOMERTZIALAK

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunei buruz hitzegitea zaharkituta geratu bada ere, Hidalgoen hitzetan zinean asko igertzen da emakumezkoen eta gizonzkoen gustu desberdintasunak: "Akzio handiko

pelikulak botatzen ditugunean gizonezkoak etortzen dira batez ere eta erromantikoak direnean edo trama sakonagoa dutenean, emakumeak. Bai, horrela da, hain nabarmena".

Gustoei buruz hitzegiten jarraituz, pelikula amerikarrek pastelaren zatirik handiena eramaten dutela esan behar da eta espainiarrek txikiena. Hidalgo azaltzen duenez "honek ez du filme espainiarrek txarrak direla esan nahi baina egia da normalean ostegun eta ostiraletan baino ez direla pasatzen eta ondorioz, jende gutxiagok ikusten dituela. Bi egun horietan zergatik pasatzen diren? Teorian diru bilteta txikiagoa izaten dutelako eta asteburuetarako pelikula potoloak utzi behar direlako. *Bwana* pelikularekin hori gertatu zen. Filmea oso ona da, izan ere, Donostiako Zinemaldian saria jaso zuen baina Arrasaten ostegun eta ostiral batean bota zen eta zapatu eta igandean *Trainspotting*. Interes komertzial handiak daude tartean". Bestalde, Hidalgo dioenez, arrasatearrei ez zaizkie bi ordu baino gehiago edo gutxiago duten pelikulak gustatzen.

## 96an Arrasaten gehien ikusi diren filmak

(Ikusle kopuruaren ordenaren arabera)

- 1.-*Twister*.
- 2.-*Independence Day*.
- 3.-*Seven*.
- 4.-*Misión: Imposible*.
- 5.-*Los puentes de Madison*.
- 6.-*Two Much*.
- 7.-*Babe, el cerdito valiente*.
- 8.-*El Día de la Bestia*.
- 9.-*Dragón Heart*.
- 10.-*Un padre en apuros*.



## ZINE KLUBA

Udalaren eskutik ostegunetan Amaia antzokia izaten diren filmak ikuslerik kentzen ez dietela esaten du Hidalgo. Bere ustez ostegunetan Amaia doan jendea Alai zinemara normaltasunez joaten den jende berdina da, baita antzerkietara edo ekintza kultural edo artistikoetara joaten dena ere.

## JOSE MARI CARRERE

## “Umeez ezagutzen ez dituzten ipuin tradizionalak kontatzen ditut”

Jose Mari Carrerek 33 urte ditu, oreretarra da eta ipuinak kontatzen dizkie umeei zein helduei. Joan den astean Arrasateko hainbat eskoletan egon zen umeei arrazakeriaren aurkako eta munduko kultura desberdinei buruzko ipuinak kontatzen. Berak ipuin tradizionalak kontatzen ditu, baina oso kultura urrunetakoak.

— Zuk asmatutakoak dira kontatzen dituzun ipuinak?

— Ez. Ipuin asko dago, zertarako asmatu gehiago? Nik ipuin tradizionalak kontatzen ditut.

— Tradizionalak izanda, umeez ez dituzte ezagutzen?


— Ez, ezta gutxiago ere. Ez ditut Euskal Herriko ipuin tradizionalak kontatzen, ezta Europakoak ere. Berebereen tribuetako ipuinak, Amazoniakoak, Tibetekoak, Ozeania-koak eta munduko beste kultura batzuetakoak kontatzen dizkiet eta jakina, umeez ez dituzte horiek ezagutzen.

— Afizioz ikasi dituzu ipuin guzti horiek?

— Bai, ipuin liburu asko irakurri dut. Dena dela, ez naiz oso zientifikoa eta metodikoa, beraz, era guztietako ipuinak irakurri beharrean, gehien gustatzen zaizkidanak irakurtzen ditut, beldurrezkoak.

— Nondik sortu da ikastolaz ikastola arrazakeriaren aurkako ipuinak kontatuz ibiltzearen idea?

— Nik banuen SOS Arrazakeriarekin harremana. Behin berebereen inguruko ipuinak sortzen hasi ginen eta hortik sortu zen ideia. Dena den,



ikasleei kontatzen dizkiedan ipuinak ez dira arrazakeriari buruzkoak bakarrik, hau da, saiatzeko naiz haurrei munduan zehar kultura desberdinak daudela jakinarazten.

— Ze helburu betetzen dute ipuin kontakizun hauek?

— Badirudi ipuin kontaketa hauek beti pedagogikoki planteatu behar direla baina nik ez dut horrela ikusten. Nire ustez ipuina kontatzean berez dator helburua edo ondorioa, hau da, pedagogia. Gainera haurrak irudimena landu eta ezagupena aberasten du.

— Umeekin bakarrik egiten duzu lan?

— Ez. Egia esan, batez ere helduekin egiten dut lan.

— Helduak joaten dira ipuinak entzutera?

— Ez, oso jende gutxi joaten da, ez baitago ohiturarik ez ipuinak entzutera joateko eta ezta ipuin kontaketa antolatze ere.

## aste gazte

## ■ BEKAK

• Reina Sofia Goi Musika Eskolak beka desberdinak deitu ditu kantu, piano, bibolin, kontrabaxu, biolontxelo eta biola instrumentuentzat. Goi Titulazioa edo azken urtea ikasten dabiltzanei zuzenduta. Epea: otsailak 15.

## ■ LANA

• Oñatiko Udalak, udaltzain lanpostu bat kaleratu du. Epea: Urtarrilak 28.

• Durangoko Udalak, trafikoko laguntzaile lanpostu bat bete nahi du. Eskariak bidaltzeko epea: otsailak 3.

## ■ IKASTARO GAZTEAK

• Karibeko dantzen ikastaroa, otsailaren 3an hasiko da eta martxoaren 19an amaituko da. Astelehen eta asteazkenetan. Hastapen maila 7-8.30 eta sakontze maila 8.30-10. Plaza mugatuak.

• Alboka ikastaroa: otsailaren 15etik ekainaren 20a arte. Larunbat goizetan, Arrasate Musikalen. Izen emateak, Gazte Bulegoan.

## ■ LEHIAKETAK

• Sondikako Udalak, Iku-riñari buruzko lehiaketa antolatuko du. Herriko Iku-riñaren Enparantzan irudi iraunkor bat jartzeko ideiak bildu nahi dira. Epea: urtarrilak 30.

• “Martxoak 8” Kartel lehiaketa, Arrasateko Udalak deituta. Leloa: “Martxoak 8: 365 egun”. Saria: 50.000 pta. Epea: Otsailak 18.

Informazio gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 77 00 65

Joan den astean La Merced, Erguin eta SFXeko haurrekin egon zen.

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Aretxabaletako San Migel kalean pisua salgai. Tel.: 79 02 09.

• Etxe bat salgai San Josepen. Tel. 77 08 06.

• Etxe bat salgai Las Malvinasen. Tel. 77 08 06.

• Etxea salgai Elkano kalean. Tel. 77 13 02.

### 2. Erosi

• Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

• Etxea erosi nahi dut Arrasaten. 100 m<sup>2</sup> ingurukoa. Nahiago igogailua eta berogailua izanez gero. Sarrera eguna negoziagarria. Tel.: 79 01 26.

### 3. Errentan emateko

• Berri berria dagoen baserria alokagai Zarimutzen (Eskoriatza), konpartitzeko ere gertu nago. Tel.: 58 50 17.

• Pisia alokagai Donostiako Egia auzoan. Tel: 79 25 16.

### 5. Etxe konpartituak

• Alokatzeko edo konpartitzeko pisu bila nabil. Tel.: (945) 42 00 13. Gaspar.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetan garaje itxia eta bikoitza salgai. Tel.: 79 14 66.

• Garaje itxia salgai Sofa Leku azpian, Musakolan. Tel.: 77 13 02.

• Larrean garaje itxia salgai. Tel.: 79 92 31 / 79 23 26.

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel: 79 23 06.

### 9. Errentan emateko

• Maala kalean garaje itxia alokagai. Tel.: 79 42 13.

• Garaje itxia alokagai Roneon. Dei egin gauez 10etatik aurrera. Tel.: 79 19 64.

• Lehengo Villa Amparo zenaren tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

19 62. Gaeuz.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel: 79 22 92.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

### 15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m<sup>2</sup>ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

### 16. Bestelakoak

• Erdiko kalean lokal komertziala traspasatzen da. Tel.: 78 18 00.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun klinika laguntzailerak umeak edo helduak zainduko litzuzke. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Esperientziadun neska kamarera lanetarako gertu. Tel.: 79 61 16.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskalduna gertu dendari edo kamarero lanetarako. Tel.: 79 37 68.

• Neska esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo agureak zaintzeko gertu. Tel: 79 27 48.

• Neska euskalduna gertu umeak zainduko. Tel: 79 04 10.

• Neska gertu umeak edo pertsonak nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Gaeuz.

• Emakumea gertu orduka etxeko lanak egin edo pintze bezala lan egiteko. Vicen. Ferrerias kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Neska euskalduna prest umeak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 20 94.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

### 18. Eskaerak

• Musakolan etxean injekzioak jartzeko pertsona bat behar da lehen bailehen. Tel.: 79 33 10. Juan.

• Esperientziadun neska euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

• Neska edo emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 07 74.

### 19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Klase partikularrik ematen ditut. Irakasle titulua eta musika irakasle titulua ditut. Tel: 79 35 13.

• Klase partikularrik emango nituzke. Tel.: 77 04 98.

• Titulodun eta esperientziadun neskek LH, DBH, REM naiz BUPeko klase partikularrik emango litzuzke. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 08 59.

• Kontabilitate klase partikularrik ematen ditut. Tel.: 79 38 91.

### 21. Eskaerak

• Marrakzi geometrikoko klase partikularrik hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

• Alemanezko klase partikularrik hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

• Bigarren BUPeko ingelesko klase partikularrik hartuko nituzke. Tel.: 79 68 75.

• 3. BUP mailako matetatika irakaslea behar da. Tel.: 79 20 24.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularrik behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Ferando.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.
- Ibiza SXI salgai. SS-AD. Egoera onean dago. Tel: 71 48 02. Gaueko 10etatik 11etara deitu.
- Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Gaeuz.
- Seat Malaga salgai. 98ra arteko ITVaz. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.
- Renault 18 GTS salgai. Matrikula: B-DT. Zilar kolorekoa. Konponketak behar ditu baina ondo dago eta merkea: 30.000 pta. ITV-a urrira arte pasatuta dauka. Dei egin eguerditik gauera 71 63 05.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

- Mendiko trabesiako botak salgai. Dashstein markakoak. 38 zenbaki-koak. Tel.: 79 32 98. Gaeuz.

• Mendiko elurretako plastikozko botak salgai. AFS 101 Carboni Fiber-Asole (39. zenb.) eta AFS 102 Fiber-Glass (44. zenb.). Tel.: 79 22 99. Gaeuz.

• Neskatilendako bizikleta tolesgarria eta 8-12 urte bitartekoendako liburu sorta oso merke salgai. Tel.: 79 82 47.

• Goi kargako garbigailua salgai. Tel.: 77 05 77.

• Kerosenozko berogailu japoniarrak salgai. Tel.: 79 03 67.

• Egongelako altzariak, egoera onean, salgai. Prezioa negoziatzeko. Tel. 79 01 33 edo 989-76 49 66.

• Astrajolas ordenagailua salgai, 100 jolasekin, oso merke. Tel. 79 34 79.

• Egongela eta jangelako altzariak saltzen ditut. Zumezkoak dira eta egoera onean daude. Tel.: 79 71 35. Gaeuz.

• Likidazioagatik argiontzi eta mahaitxo lanparak salgai. Tel: 79 25 96.

• Bi mostradore eta bitrina salgai. Tel: 79 99 41 edo 79 25 26.

• Fender gitarra anplifikadorea salgai. 38 W.A. Reverd. Etxean erabili dut bakarrik. 20.000 pta. kableak eta

"chorus" pedala barne. Tel: 79 25 10. Igor.

• Eskalatzeko Boreal markako katu hanka salgai. 43-44 zenbakia. Oso gutxi erabilia. 5.000 Pta. Tel: 79 25 10. Igor.

• Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

• Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

• 1,05 m. ko ohea koltxoi eta guzti, sekreterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

**27. Erosi**

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Auto barruan umea eramateko aukitxo erosiko nuke. Gaueko 8etatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

• Kitarra elektrikoa eta anplifikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

• Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

**31. Galdu**

• Abenduaren 17an urrezko hiru pulsera galdu nituen Biteri aparkalekuan. Tel: 76 51 67. Eskertuko da.


**32. Aurkitu**

• Urtarrilaren 8an giltza batzuk aurkitu nituen Arbolapetan. Giltzak "Deportes Oto" jartzen duen kartera baten barruan daude. Tel: 79 86 28.

• Urtarrilaren 15ean, asteazkena, Zaldibarren umeen bizikleta bat galdu bazenuen joan zaitetz Ertzaintzara jasotzera.

**33. Bestelakoak**

• Dante, Petrarca edo Boccacciori buruzko lan bat behar dut Unibertsitaterako. Tel.: 79 82 42 / 79 28 71. Igor.



**weru®**  
**Ate + leihoak**




**ERAKUSKETA:** Garro Jenerala, 2  
**BILTEGIA:** Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95  
**ARRASATE**



**PVCko ate eta leihoez gain:  
Moketak jartzea,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape kortinak,  
Kortinoba, textila...**

## ■ Jose Luis Etxeberria "Porru"

UDALTZAINBURUA



**A**rrasateko udaltzainburua da orain dela 15 urtetik. 39 urte ditu eta Aretxabaletan, Isurietan auzoan jaio eta bizi da. Ikasketak Almenen eta Eskola Politeknikoan egin zituen. Ezkonduta dago eta seme bat eta alaba bat du. "Porru" deitzen diote baserriagatik.

1. Zein da zure horoskopoa? Cancer.

2. Sinestuna zara? Bai.

3. Animalia bihurtzekotan?

Txantxangorri.

4. Zure akats bat/gauza on bat? Hori besteez esan behar

dute/Laguntzeko beti prest.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Erridikuloa egiteak.

6. Amets bat? Euskal Herria batuta eta aske ikustea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Berekoikeria, intolerantzia, gezurra eta azpi jokua.

8. Gertakizun historiko bat? Argi elektrikoa.

9. Nor miresten duzu? Gandhi.

10. Zeri diozu beldurra? Heriotzari.

11. Zertaz damutzen zara? Egindakoak eginda, aurrera begiratu behar dugu.

12. Negar egin duzun azken aldia?

Nere ama eta lagun on bat hil zirenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Ulertzeko ahalmena.

14. Eta zuri? Hainbat gauza...

15. Lanbidez aldatzekotan? Abeltzain.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Sta. Barbara.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Etxeko erosketak.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Eskuartearen erortzen zaidana.

19. Gustoko janari bat? Baba gorriak.

20. Liburu on bat? *La Tregua*.

21. Filmerik onena/txarrena? El hombre de Kiev/Asko daude.

22. Musika talderik onena/txarrena? Gozategi eta Maixa eta Itziar/Zaratatsuak.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Sustraiak/Erdia baino gehiago.

24. Egin dizuten oparirik politena? Opariak denak dira politak.

25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Baserrian, familiarekin edo lagunekin.

26. Oporretarako toki bat? Canada.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Fregatua.

28. Gomendio bat? Norbera den bezala azaltzea alde guztietan.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Ez dut horrelako zorterik izango...

### ARGI PLASTIC

- PVC ETA ALUMINIOAN EGINDAKO LEIHOAK, MANPARAK...
- LANTEGITIK ZURE ETXERA ZUZENEAN

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!

Tailerra eta bulegoa:

Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



### Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

FELIPE  
MADINA  
ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 79 13 78



# Aranguren-Bakube-Zigorrola Bakubetik Oñatira begira

Gaur, Patxi Anporreta ohe-tik lo larregi egin barik jaiki da, atzo soziedadien afaria euki eta lagun batzuekin Zigorrola aldeko mendi eta inguruetatik buelta bat ematea erabaki zuen eta.

Patxi sarritan ibili da Zigorrola aldeko mendixetan, perretxikutan, gaztainatan.

Bederatziretan San Isidro elizan alkartu eta Aranguren baserri-runtz abiatu dira. Aranguren baserrixe baino lehentxuau, eskumaruntz urteten dauen pistatik abiatu dira, segiruen ezkerreko pistie hartzeko. Pistiei jarraituz, laister langa bat topau daue, Bakube errekie gurutzatzen dan lekuen. Erreka bestekaldetik gora doien pistie hartu eta urretxadi zoragarri batetik errekie jarraituz, Bakubeko leporuntz jo daue. Igoera honetan Patxik, umetan aittakin batera orturako makila bila etorten zala gogoratu dau.

Halako batién Bakubeko txabolie ikusi daue eskumakaldien, Bakubeko lepora heldu dien seinale. Hiru ordu laurden eman ditue hona ailegetako. Apur bat arnasie hartu eta ezkereruntz hartu daue, aldapa larregi barik, eta goruntz doien pistie jarraitu daue. Benetan aipagarriak hemen dazen pinus insignis erraldoiak.

Laister, Aloña-Aizkorri-Orkatzategi (Zaraia mendikatea) inguruak ikusteko aukera izan daue; benetan, Oñatiko ikuspegi zoragarrixe.

Aurrera jarraituz, Antzarigartukuen txabolara ailegau die, hamarretakoa ein eta paisajiaz gozatzeko leku aproposa dala esan daue. Txabola txiki honek badauko



zeozer, bi aretx dotore artien dau, kanpoaldean egurrez egindako mahai eta eserleku dotore baten aztarnak ikusten die. Baina zoritxarrez hau be gizakiaren arrazoigabekeriak hondatu dau. Ordu eta laurden igaro da Aranguren base-rritik irten dauienetik.

Hamarretakoa ein eta alkarri adarra jo eta gero, txabolaraino ekarri dituen bidie goruntz hartu daue. Laster bidiek aldapie galtzen dau, ezkerrealdien Kortaburu tontorra pinu artien justu-justu ikusten da. Patxik esan daue, hemen ezkerretara pinu artien sartu ezkerre, hamabost minutuan Kortaburu tontorra zapalduko dogu. Gas hobia pasetan da, eta burdibide zahar baten aztarnak ere ikusiko ditugu. Patxik-eta aurrera egitia pentsau daue, aldapa barik doien bidetik. Halako batién, bidiek 180 graduko bihurtu- nie emoten dauen lekuen, mugarri zahar bat topau daue. Oñati eta Arrasate bereizten dituen mugarria izango ete dan

galdetu dau Patxik.

Bihurgunie hartu eta pistie jarraitu daue, laster behe- runtz jotzen dauen pistie hartzeko. Zati haundi baten, porlanezkue da pistie, Zubillagan hormigoie egiten dan lekuraino. Hemen, kontu haundiz bidie pasau eta erreka bestealdien dazen pabiloi industrialetara doan zubia igaro eta pabiloi horrein atzetik doan trenbide zaharra hartu eta ordu laurden baten Elorregi auzora heldu die (San Prudentzio). Hemen Tavesa lantegiraino jo eta hantxe bertan dauen zubitik errekie beste aldera pasau die, Sagasti Etxeko (Etxezarreta) bidie hartuta. Hemendik Zigarrolarako bidie benetan zoragarrixe dala esan biher, holakotxie da-eta Sagasti Etxeko lora- tegi eta basoa. Konturatu dienerako Zigarrolara heldu die, domeka goiz politte igaro eta gero.

Patxadan taldea

Euskararen Txokoa

## Lengaueneko kontuek

Zeinek ez dau entzun halakorik:

- "Beste egunien/beste egunian Gasteizen izan nitzen eta neba-arrebak ikusi nittuen".

- "Beste egunien, telebisiñuei begira ninguela, aldemenekue agertu jakun barrixek emoten".

Baina esaldi horreik ez dauz ondo esanda. Zein da, baina, ondo esandakue?

- Lehengo egunean, aurreko egunean, joan den egunean... (batuan).

- Lengauien, aurreko egunien, fan zan egunien (hemen).

Beste egunien (beste egunian/beste egunean) horrek erdal kutsua baino ez du, eta oso txarto dago.

Denboran urriñago fanda, lenauko edo aspaldiko gauzak kontetako, edo orain gutxi gertatu dena esateko, beste modu batzuk dittugu:

orain hurrengo, behinola, aspaldi, antzina...

Beraz hemendik aurrera ez esan inoiz beste egunien eta horren partez, honela esan:

fan zan egunien, lengauien (lehengo egunean), aurreko egunien...

Karmelo Uribarren  
eta Joxe Ramon  
Agirroureeta

## ■ Horoskopoa

- **Aries** Azkenaldian ez duzu arroparik erosi. Oraintxe duzu garaia.
- **Taurus** Irla exotiko batera joan behar-ko zenuke oporretan.
- **Gemini** Paperezkoa zara batzuetan. Non dituzu sentimenduak?
- **Cancer** Sagardotegietako upelak bezain borobil jarriko zara.
- **Leo** Inori kontatu ez arren, denek daki-te triste zaudela.
- **Virgo** Telebistaren hatzaparretatik ihesi joan behar duzu.
- **Libra** Kontuz egun hauetan, istripuren bat izan dezakezu eta.
- **Scorpio** Nork ulertu zuri? Batzutan triste, bestetan pozik.
- **Sagittarius** Horrela jarraituz gero txori batek bezala jango duzu.
- **Capricorn** Adarra jotzea gustatzen zaitzu baina pasatu egiten zara.
- **Aquarius** Bistan da azkenaldian abentura interesgarria izan duzula.
- **Piscis** Urdaileko mina izango duzu. Garbi jan badaezpada.

## ■ Gurutzegramak

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			11
12		13			14	
15				16		
17				18		
19						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Izenpe. 8. Bi zotzez jotzen den danbor estua. 9. Galioa. 10. (Ald.) Erraz izutzen dena. 12. Bazkatu. 14. Txakur. 15. Funtzio trigonometriko bat. 16. Intsektu ortopteroen izen arrunta. 17. Bi lurraldeen arteko muga. 18. Trebe. 19. Kolorezko triangeludun jantzia duen pertsonai komikoa.


**Bertikalak** 1. Luis, Arrasate Musikaleko lehendakaria. 2. Italian jaioa dena. 3. Nafarroako ibilgailuetan. 4. Erlijiosoen jantzi berezia. 5. Informazio zehatza. 6. Otsoen oihu luze eta tristea. 7. Urteko laugarren hilabete. 11. Bapatean gertatzen den arnasfora ozena. 13. Gai tintatzailea urdina. 16. Errusiako ibaia. 18. (Ald.) Alfabetoko hamai-kagarren letraren izena.

**Horizontalak:** 1. Sinadura. 8. Arabat. 9. Ga. 10. (Ald.) Izut. 12. Alatu. 14. Or. 15. Sinu. 16. Oti. 17. Tal. 18. Abil. 19. Arlekin.  
**Bertikalak:** 1. Sagasta. 2. Italiar. 3. Na. 4. Abitu. 5. Datu. 6. Ulu. 7. April. 11. Zotin. 13. Anil. 16. Oti. 18. (Ald.) Ka.

# ikastaro gazteak

## ALBOKA

- Otsailaren 15etik ekainaren 20ra  
(Larunbat goizetan)
- Arrasate Musikalen
- Hiru txanda  
10-11, 11-12, 12-13.
- Matrikula: 2.000 pta.  
(1.000 pta. ikasle eta langabetuentzat)
- Plaza mugatuak
- Izen emateak: **Gazte Bulegoan (77 00 65)**



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■





Maiderrarte, Goizane Arana, Belen Aranbarri eta Garbiñe Perez

## Jailarai eta Euskal Festa irratsaioetako neska laukotea

Maiderrarte, Goizane Arana, Belen Aranbarri eta Garbiñe Perez. Lau neska gazte hauek *Jailarai* eta *Euskal Festa* irratsaioak egiten dituzte Arrasate Irratian. *Jailarai* umeendako irratsaioarekin urtebete baino gehiago badaramate ere, *Euskal Festa* irratsaioari 96ko abenduan eman zioten hasiera eta diotenez, oraindik goiz da balorapen bat egiteko. *Euskal Festa* asteartero 10.00etan zuzenean emititzen da eta ordubete irauten du. Tarte desberdinak ditu bai-

na oraindik berri samrarena, tarte berezi bezala mitologiari eta musika tresnei buruzkoak dituzte. Aurrerago poesiarire txoko bat egin nahi diote.

*Jailarai* irratsaioari dago-kionez, astindu bat emateko ordua heldu zaiola uste dute lau neskek. Ordu erdiko programarekin hasi ziren baina dagoeneko motz geratu zaie eta horregatik, iraupenez luzatu eta edukiz berri nahi dute.

Neska hauei ezin uka zaiena gogoia eta meritua da: *Eus-*

*kal Festa* irratsaioa zuzenean egiten dute asteartero eta *Jailarai* grabatu egiten dute. Horrenbeste ordu sartu ondoren, jadanik lotsak eta urduritasunak gaudituta dituzte. Baina lau neska hauen zereginak ez dira berdinak. Garbiñe Perezek adibidez, *Euskal Festa* mitologiari buruzko txokoa ez ezik, atzeko lana egiten du kontrol gelan. Goizanek, Garbiñek eta Belenek berriz, mikrofonoaren aurrean berriketa egin eta irratsaioak prestatzen dituzte Garbiñekin batera.

### Arrasate Irratia FM 107.7

#### Egunero

9.00 Albisteak  
9.30 Goizoro magazina  
14.30 Bixau orduan

#### Astelehena

22.00 Caravanserai musika saioa.

#### Asteartea

22.00 Euskal Festa.

#### Asteazkena

22.00 KK2A

#### Osteguna

21.00 Adi Egon  
22.00 Txerrendantza

#### Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

#### Larunbata

9.30 *Jailarai* umeendako saioa.  
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

### ATBko emisioak astelehenean

Astelehenetik aurrera Arrasate Telebista aurrez eskeinitako programa batzuk emititzen hasiko da frogamoduan. Arratsaldeko 8etan Trebelanak eskulanei buruzko saioak eta 8.30etan folk kontzertuak eta antzerkia emitituko ditu.

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE



**Erakusketa:**  
Araba Ibilbidea, 36  
Tel.: 79 07 62 / 71 63 95  
909-48 36 18  
**ARETXABALETA**

**OLTZA**  
Dekorazioa Egurrean  
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak • Eta abar  
MATERIALEN  
SALMENTA

**ZABALDU BERRIA!**

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**J**oan den asteburuan 20 urte bete ziren ikurriña legeztatu eta balkoian jarri zenetik. Argazkiak ondo erakusten duenez, goraino bete zen plaza San Sebastian bezpera hartan. Aurrez, baina, udal plenoa burutu zen Udaletxean, ikurriña jartzeko akordioa hartzeko. Ezkerretik hasita, honako hauek osatzen zuten orain 20 urteko udalbatza: Gabriel Mendizabal, Gregorio Etxabe, Jose Luis Otaduy, Jose Maria Unzueta, Bixente Azkarate, Tomas Atxa, Jose Mari Agirreurreta, Ignacio Uriona, Ignacio Mujika, Jose Antonio Altuna (alkatea), Ignacio Iraeta (idazkaria), Alberto Martinez de Ubago, Agustin Arregi, Francisco Javier Quintana eta Guillermo Aspiazu. Argazkian ikusten ez dena, baina hor egongo zen eskumaldean, Alvaro Arregi da.



Urtea: 1977

Argazkia: Bixente Azkarate.

Informazioa: Bixente Azkarate.

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16  
ARRASATE

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 79 20 56


**IBARRA  
Garajea S.L.**



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

# Gozategi'z Blai

Musika eta dantza taldea

Urtarrilaren 24an ostirala

Amaia antzokian

Gaueko 10.30etan

Sarrera: 700 pta.

(Gazte Txartelarekin 500 pta.)



ANTOLATZAILEA



BABESLEA



ARRASATEKO UDALA

LAGUNTZAILEAK:

Canas-Esteban eraikuntzak, Uribarri Keramikak, Sara merenderua, Kajoi taberna, Ostantz taberna, Foruen kafetegia.

**“Urtean zehar milioika kilometro zure bidalketak puntualki eramaten”**



Bizkaia Etorbidea,  
16 behea.  
20.500 ARRASATE  
Tel.: 79 92 77

**DOKUMENTU ETA PAKETEEN GARRAIO AZKARRA**

**900 100 000**  
Informazio Orokorra

<http://www.nacex.com>  
Email: [nacex@nacex.com](mailto:nacex@nacex.com)

# OPEL VECTRA BERRIA



## ARTEA MUGIMENDUAN



### SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamentako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatu, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

### ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

### BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.